



ORDEÑANA GEZURAGA, Ixusko

Hezkuntza eta Kultura Ministerioiko bekaduna
Zuzenbide Fakultatea
Deustuko Unibertsitatea
Unibertsitateen etorbidea, 24
48007 Bilbo
iordenan@der.deusto.es

BIBLID [1137-1951 (2003), 10; 57-77]

Sarrera eguna: 2003.03.03
Onarpen eguna: 2003.03.14

Amerikar Estatu Batuetako auzitegi antolaketa: Lerro nagusiak (1)*

(The judicial organisation of the USA: Main characteristics (1))

Artikulu honek AEBetako auzitegi antolaketan barneratzen gaitu. Berau ulertzeko ezinbestekoa denez, Estatu Federatu honen sistema politikoa-
ren ezaugarriak labur-labur aipatu ondoren, bere auzitegi antolaketa-
ren lerro nagusiak jorratuko ditugu. Lehenengo Federazio mailako Auzitegiak aztertuko ditugu. Federazio mailako beste Auzitegi berezi batzuk ere aipatuko ditugu. Gero, Federazioa osatzen duten Estatu desberdinen auzitegi antolaketan geldituko gara, azkenik Federazio mailako eta Estatu mailako auzitegien arteko harremanak lantzeko.

Giltza hitzak: Amerikar Estatu Batuak. Auzitegi Antolaketa.

El presente artículo nos introduce en la organización judicial de los EE.UU. Tras analizar sucintamente las características principales de su sistema político, del todo imprescindible para la comprensión de la organización de sus Tribunales, profundizaremos en las líneas fundamentales de la misma. Estudiaremos primeramente los Tribunales Federales, y a continuación citaremos otros Tribunales Federales especiales. Tras detenemos en el análisis de las diferentes organizaciones judiciales Estatales, finalizaremos señalando las relaciones entre los Tribunales Federales y Estatales.

Palabras clave: Estados Unidos de América. Organización judicial.

Cet article nous introduit dans l'organisation judiciaire des Etats-Unis. Après avoir analysé brièvement les principales caractéristiques de son système politique, tout à fait indispensable pour comprendre l'organisation de ses Tribunaux, nous examinerons plus profondément ses lignes fondamentales. Nous étudierons premièrement les Tribunaux Fédéraux, et ensuite nous citerons d'autres Tribunaux Fédéraux spéciaux. Après nous être attardés sur l'analyse des différentes organisations judiciaires d'Etat, nous terminerons en signalant les relations entre les Tribunaux Fédéraux et d'Etat.

Mots clés: Etats-Unis. Organisation judiciaire.

*. Artikulu hau, AEBetan, Massachusetts Estatuan kokatutako Harvard Law Faculty-an, Espainiar Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren dirulaguntzarekin, 2002ko uztaila eta iraila bitartean academic visitor gisa egindako egonaldia-
ren fruitu da.

1. **Sarrera:** 1.1. Gaiaren aurkezpena. 1.2. AEBetako zuzenbidea, *Common Law*-ren familiakoa. 1.3. AEBetako egitura politikoa *in a nutshell*: Errepublika Federal Presidentzialista. 2. **AEBetako auzitegi antolaketa:** 2.1. Auzitegi bikoiztasuna edo dualitatea. 2.2. Auzitegi Federalak: 2.2.1. Ezaugarri orokorrak. 2.2.2. *District Courts*. 2.2.3. *Federal Appellate Courts*. 2.2.4. *The Supreme Court*. 2.2.5. Beste Auzitegi Federal batzuk. 2.3. Estatu Auzitegiak: 2.3.1. Ezaugarri orokorrak. 2.3.2. Behe mailako auzitegiak. 2.3.3. Apelazio auzitegiak: erdi mailako apelazio auzitegiak. 2.3.4. Estatuetak azken auzitegia edo auzitegi Gorena. 3. **Auzitegi Federalen eta Estatu Auzitegien arteko harremanak.**

1. Sarrera

1.1. Gaiaren aurkezpena

Artikulu honetan, AEBez arituko gara, 9.372.614 kilometro karratuko lurralde hedadura-ekin zabalera handiena duen munduko hirugarren Estatuaz, 260.711.000 biztanleren bizitokia den lekuaz². Baina, zalantzarik gabe, Estatu honek mundu mailan daukan garrantzia, munduko potentzia ekonomiko garrantzitsuena izatek eratorria da: bera da azkenengo urteetan mundu osoko ekonomiaren gidari. Hau horrela izanda, eta edozein Estaturen jardueran bere ordenamendu juridikoa oinarritzko elementua izanik, ondorengo lerroetan ordenamendu juridiko honen funtsezko zati bati hurbiltzea proposatzen dizuegu, bere auzitegi antolaketa hain zuzen ere. Gaia oso zabalaz, antolaketa honen lerro nagusiak landu eta puntuan puntuko berazetan sakontzeko bibliografía emango dugu. Gu geu hurrengo artikulu batetan, epai antolaketa orokorra aski argi geratzen denean, lurralde horretako epaileen aukeraketa bideen azterketa egitera konprometi-

tzen gara ("Amerikar Estatu Batuetako auzitegi antolaketa (2): epailegora sarrera")³.

Oraingoz, gure gaiari ekiteko, beharrezkoa da aurretiaz hurrengo bi puntuak jorratzea.

1.2. AEBetako Zuzenbidea, *Common Law*-ren familiakoa

Munduko Zuzenbide familien artean⁴, AEBetan indarrean dagoen Zuzenbidea *Common law* deritzonaren barruan kokatu behar dugu, Zuzenbide ingelesaren eragineko beste ordenamendu juridikoen artean (hala nola, Ingalaterra, Kanada, Australia, Zeelanda Berria, India...) eta *Civil Law* edo kontinenteko Zuzenbide familiatik (Frantzia, Alemania, Italia, Portugal, Espainia, Afrikako zenbait Estatu, Amerika Latinoa...) aldentuta. Izan ere, nahiz eta AEBetako Zuzenbideak *Common Law*-ren barnean ezaugarri bereziak izan⁵, familia honetan kokatu behar dugu, bi arrazoi nagusitan oinarrituz: batetik, AEBetako Zuzenbidearen iturrien artean epaileen aurrekariak (*judicial precedents*) duten garrantziari erreparatuz⁶, beste iturriei (legegileak eta exekutiboak emandakoei) bigarren mailako garrantzia ematen zaielarik⁷, ordenamendu juridikoa osatzearena. Bestetik, legeak biltzen dituzten kodeak (*Civil Law*-n hain garrantzitsuak direnak!) ez dituztelako⁸.

1.3. AEBetako egitura politikoa *in a nutshell*: Errepublika Federal Presidentzialista

Jakina da AEBak 50 Estaturik, Columbiako Distritoak, Puerto Ricoko *Commonwealth*-ak eta Guam, Virgin Islands eta Northern Mariana Islands-ek osatutako Estatu Federal bat dela. Federazio honen jatorria aurkitzeko, historian XVII. mendera arte egin behar dugu atzera, egun AEBak osatzen duten lurraldea gehienbat ingele-

-
1. Artikulu hau, AEBetan, Massachusetts Estatuan kokatutako Harvard Law Faculty-an, Espainiar Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren dirulaguntzarekin, 2002ko uztaila eta iraila bitartean *academic visitor* gisa egindako egonaldian fruitu da.
 2. Salvat Entziklopedia,artzelona: Salvat Editores, 1997; 1469. or.
 3. Bitartean norbaitek gai honetan sakondu nahi badu, hiru testu egoki proposatzen ditugu: LEE EPSTEIN, *Contemplating courts*, A Division of Congressional Quarterly, Inc. Washington D.C., 1995; 18-45 orr. SARGENTICH, T.O. et al., *Uncertain justice. Politics and America's courts*, New York: The century foundation press, 2000; 87-111 orr. eta COMISKY, M.; PATTERSON, P.C. *The judiciary: selection, compensation, ethics and discipline*, New York: Quorum books, 1986; 3-18 orr.
 4. Gai honi buruz, hona hemen liburu bikain bat: ZWEIGERT, K.; KÖTZ, H. *An introduction to comparative law*, 2. argitaralpena, Clarendon Paperbacks, Oxford University Press, Ingalaterra, 1993.
 5. DAVIS, R. *Los grandes sistemas contemporáneos (derecho comparado)*, BRAVO GALA, P.k espainiaratua, Madril: Aguilar, 1970; 313. or. Gainera, guk geuk frogatuko dugu 6 eta 7. oharretan.
 6. Aurrekariak bere Zuzenbidearen iturrien ardatza dira. Horrela baieztatzen du DAWSON, J.P.k, *Talks on American law. A series of broadcasts to foreign audiences by members of the Harvard law school faculty*, edited by Harold J. Berman, USA: Vintage books, 1981; 18. or. Amerikako *judicial precedents* direlakoei buruz, ikus ALAUSERT, R.J. *The judicial process*, American Casebook Series, St Paul, Minnesota: West Publishing Co., 1996; 121-127 orr.
 7. Honi buruz, ikus PIZZORUSO, A. *Curso de Derecho comparado*,artzelona: Ariel Derecho, 1987; 55-57 orr. Gainera, egia da azkenaldian organo legegileek emandako legeriak gero eta garrantzia handiagoa duela, FARNSWORTH, E.A.k, *An introduction to the legal system of the United States*, 3 argitaralpena, New York: Oceano Publications Inc, 1996; 37. orrialdean eta hurrengoetan esaten duen legez.
 8. Ezaugarri hau ere baretu egin behar da, badituztelako zenbait kode –gero eta gehiago–. Berauen artean famatuena, federazio mailan merkataritzako lege uniformeak biltzen dituen *Uniform Commercial Code* da.

sen koloniak ziren garaira⁹. 1776. urtean Ingalaterrarekin izandako independentzia gudatik irabazle aterata, urte berean egindako independentzia aldarrikapena (1783an finkatua) izan zen gerora munduko potentziarik garrantzitsuena izango zenaren garai berriaren abiapuntua.

Zalantzarik barik, Estatu erraldoi honen historiaren ardatza 1787ko irailaren 17an 13 Estatu sortzaileek sinatu zuten Konstituzio Federala izan zen. 1789an indarrean sartu zen Konstituzio hau da oraindik indarrean dagoen idatzizko munduko konstituziorik zaharrena: nahiz eta urteetan zehar hainbat emendakin egin zaizkion, inoiz ez da indargabetu, munduko konstituzioen artean iraunkortasun eredu bihurtu delarik¹⁰.

Konstituzio Federal honek, ataletan banatutako 7 artikulua –bakarrik!– eta hauei gaineratzen zaizkien 27 emendakin (“amendment”) ditu, eta, batez ere arautzen ditu Federazioaren egitura eta honi dagokion botere banaketa (lehenengoko hiru artikulua), Federazioaren eta Estatu Federatu desberdinen arteko harremanak (4. artikulua) eta amerikar herritarren oinarrizko eskubideak (*Bill of Rights* derizatenak, lehenengoko 10 emendakinetan).

Konstituzio honen islan, egin dezagun orain indar AEBetako egitura Federalean: AEBek Errepublika –lehenengoa eta azkena, 1787. urte-tik indarrean dirauena, guda zibileko (1860-1865) garaian bertan ere eraginkor izan zena!– Federal Presidentzialista forma dute sistema politiko bezala.

Federazio hau, esan bezala, Konstituzio Federalak arautzen du, ohiko hiru botere nagusiak aintzatesten dituelarik: exekutiboa –Konstituzio Federalaren 2. artikuluan arautua, berariazko hauteskunde bidez 4 urtetarako aukeratutako Presidente eta Presidenteordearen eskuetan dago, beren menpe *federal agencies and departments* egitura administratiboak daudelarik–¹¹,

legegilea –Konstituzio Federalaren 1. artikuluan arautua, *House of Representatives* edo *lower house* (beheko ganbarak)¹² eta *Senate* edo *upper house* (goiko ganbarak)¹³ osatzen duten *The two houses of the Congress*-en eskuetan–, eta epai botere federala. Azken hau Konstituzio Federalaren hirugarren artikuluan dago arautua, lerro batzuk atzerago izango dugu jolas arrazoi.

Baina, esan bezalaxe, Federazioak federatutako Estatuarekin beraiekin banatzen du boterea, Estatu ezberdinen subiranotasuna hein handi batean aintzatetsiz. Horrela, Estatu elkarte edo Federazioa osatzen duten Estatu guztiak dute beren ordenamendu juridikoaren buru den Konstituzio propio bat, beraiekin botere legegilea¹⁴, botere exekutiboa¹⁵ eta epai boterea. Azken honi buruz geroago mintzatu gara luze, baina joan bedi orain aurrerapen bat: Estatu ezberdinen auzitegien antolaketan ezaugarri komunak aurki badaitzke ere, Federazioa osatzen duten Estatuetariko bik ez dute antolaketa bera!

Hala ere, eta berehala egingo ditugun matizazioen zain, Federazioetan ohi denez, Federazioaren ordenamendu juridikoa Estatu bakoitzeko ordenamendu juridikoaren gainetik dago. Ikusten denez, hierarkia printzipio zorrotza aplikatzen da: Estatu bakoitzeko ordenamendu juridikoaren buru den Konstituzioa –eta gainerako ordenamendu juridikoa– Federazioaren Konstituzioaren menpe dago¹⁶. Honek argi uzten du, guk era hain bakunean azaldu badugu ere, oso egitura juridiko konplexua dagoela AEBen atetik: Zuzenbide federala eta Estatu bakoitzeko Zuzenbide elkarrekin bizi dira, eta bakoitzari dagozkion botere legegile, exekutibo eta judiziala ere bai. Hauek guztiak ezkontzeko, aipatutako hierarkia matizatzeko duen oinarrizko kontzeptu bat ekarri behar dugu mahai gainera: eskuduntza. Honi dagokionez, argi utzi behar dugu printzipioz botere federal bakoitzak bere eskuduntzak dituela, eta Konstituzio Federalak beraiei esanbidez aintzatesten ez dizkienak Estatuaren esku gelditzen

9. Gehienbat esaten dugu espainolak eta portugesak egungo Amerika Latinoko eta Karibe uharteetako jabe zirelako. Garai honetako kolonietako Zuzenbideaz, ikus FRIEDMAN, L.M. *American law introduction*, 2 argitalpena, New York-London: W.W. Norton and Company, 1998; 52-58 orr.
10. HAY, P. *An introduction to US law*, bigarren argitalpena, AEB: Butterworth Legal Publishers, 1991; 16-17 orr. Arras desberdina da Federazioa osatzen duten Estatu desberdinen konstituzioen kasua, hauek sarri askotan aldatuak izan baitira, esate baterako Louisiana Estatuakoa, hamar aldiz aldatu dute.
11. Hau da Estatu honetako Presidentzialismoaren ardatza. Presidenteak, Estatu Federalaren burua eta beronen Gobernuaren arduraduna denak, legez bi agintaldi bakarrik bete ditzake. Bere lana aurrera eramateko, *Cabinet* bat osatzen du *Secretaries*-ak aukeratuz. Azken hauek, espainiar ministroen parekoak, ez dira Kongresuko –berehala ikusiko dugunez, organo legegilea– kide.
12. Berau Federazioa osatzen duten Estatu desberdinetako populazioaren proportzioaren arabera aukeratzen da, Estatu bakoitzak, bere populazio kopurua edozein izanda ere, gutxienez ordezkari bat duelarik (Konstituzio Federalaren 1.2 artikulua).
13. Federazioa osatzen duten Estatu bakoitzeko bi kidez osatuta dago, espainiar Senatuarekin gertatzen den bezala lurraldetasun ordezkartza ganbera bezala aurreikusten delarik.
14. “Parlament” desberdinen eskuetan. Ez dute Kongresu (Congress) izena hartzen, azken hau organo legegile Federalarentzat erreserbatzen delarik. Parlamentu hauek guztiak, Nebraskakoa salbu, bikameralak dira.
15. Beronen arduraduna Gobernadorea da, ez Presidente, azken izen hau Gobernu Federalaren buruarentzat gordetzen delarik.
16. LEVASSEUR, A.A.; BAKER, J.S. *An introduction to the law of United States*, Maryland: University Press of America, 1992; 22-23 orr. Hierarkia printzipio hau, eta beronek suposatzen duen ordenamendu federalaren nagusitasuna Konstituzio Federalaren 6. artikuluko 2. atalean aintzatesten da, ondorengo hitzekin: “Konstituzioa eta berau gara dezaten AEBetako legeak, eta AEBen aginpidean egindako eta egingo diren itun guztiak, lurraldeko lege gorena izango dira; eta Estatu guztietaiko epaileak lotuko dituzte, Estatuetaiko Konstituzioek eta legeek edozer xedatuta ere”. Zentzu honetan ikus SCHWARDTZ, B. *El federalismo norteamericano actual*, Madrid: Civitas, 1984; 29-32 orr.

direla¹⁷. Gainera, Federazioaren eskuduntza eskusiboetan¹⁸ Estatuari "hondakinezko eskuduntza" aintzatesten zaie: ezin dute Zuzenbide federalaren kontra doan xedapenik eman, baina bai Zuzenbide hori osatzen eta bere hutsuneak betetzen dituztenak.

Aipatutakoa, botere legegile eta exekutibolari dagokienez. Epai botereari dagokiona geroago aztertuko dugu. Memento honetan beste gauza bat aurreratu behar dugu: ez datoz bat Kongresuaren eskuduntzakoak diren gaiak eta auzitegi federalek ezagutzen dituztenak. Adibide batek argi erakutsiko digu esandakoa: zigor erantzukizunari dagokionez, Kongresuak ezin du legegirik eman, gai hau bere eskuduntzetatik at gelditzen delako, baina posible da gai horri buruzko kasu bat auzitegi federal batek ezagutzea, kaltearen egilea eta biktima, hurrenez hurren, Federazioko Estatu desberdinetako herritarrek baldin badira (*diversity of citizenship*).

Testu honen lehen atal honekin bukatzeko, garrantzitsua da azpimarratzea, nahiz eta Federazioaren eskuduntzak garrantzitsuak diren eta denborarekin botere federalak gero eta indar handiagoa hartu duen¹⁹, amerikarren eguneroko bizitzako jardueretan tokian tokiko Estatu bakoitzaren Zuzenbideak, ordenamendu juridikoak alegia, duela lehen mailako garrantzia. Horrela, Zuzenbide zibileko kasu gehienak (familia, oinordetza, kontratuak...), Merkataritza zuzenbidekoak (kontratuak gehienbat), Zigor zuzenbidekoak (delitu eta falta komunak...), Estatu bakoitzaren eskuduntzakoak dira. Hau horrela izanik, irakurleak erraz asko susma dezake Federazioko Estatu desberdinen legeria eta jurisprudentzia hein handi batean oso desberdinak direla.

2. AEBetako auzitegi antolaketa

2.1. Auzitegi bikoiztasuna edo dualitatea

AEBetako auzitegi antolaketa hain erakargarria egiten duena bere bikoiztasun edo dualta-

sun da²⁰: federazio mailako auzitegiek Estatu ezberdinetako auzitegiekin elkarbizi behar dute. Gainera, aurretiaz iragarri dugunez, Estatu ezberdinetako auzitegi antolaketa desberdina da oso. Horregatik, zuzenki esaten da AEBetan 51 auzitegi antolaketa ezberdin daudela²¹. Hau horrela izanik, hurrengo lerroetan auzitegi federalak banaka eta Estatu ezberdinetakoak orokorrean –hainbeste izanda ezinezkoa baita Estatu bakoitzeko egitura sakontasunez azaltzea– aztertu ondoren, beraien arteko harremanetan indar eginez bukatuko dugu.

2.2. Auzitegi Federalak

2.2.1. Ezaugarri orokorrak

AEBetako auzitegi federalez hitz egitean, abiapuntua Konstituzio Federalaren 3. artikulua da. Artikulu honek amerikar epai boterea Auzitegi Gorenak (Supreme Court) eta Kongresuak agindu eta ezar (*ordain and establish*) ditzan beheragoko auzitegiek osatzen dutela dio.

Honen aurrean, argi dago Kongresuari dagokiola ez bakarrik Federazio mailako auzitegien antolaketa, baizik beraiek sortzea ere. Konstituzio Federalak ez du puntu honetan azalpen gehiagorik ematen, baina auzitegiak sortzeko lerro batzuk finkatzen ditu.

Horrela Konstituzio Federalaren errespetupean, Kongresuak auzitegiak sortzeko bi bide ditu, erabilitako bidearen arabera *constitutional federal courts* eta *federal legislative courts* desberdintzen direlarik. Bi mota hauetako epai organoen arteko desberdintasun nagusia beraien independentziaren bermatze mailan datza, independentzia hau auzitegiok osatzen dituzten epailen *status*-arekin zuzenki lotuta dagoelarik.

Constitutional federal courts-ak Kongresuak Konstituzio Federalaren 3. artikuluan islan sortzen dituenak dira. Auzitegi hauetan aritzen diren epaileei Konstituzioaren 3. artikuluan aintzatesten diren pribilegioak (biziarteko lanpostua²² eta

17. Hau horrela ezartzen du berariaz Konstituzio Federaletako 10. emendakinak (1791. urtekoa): "Konstituzioak Federaziolari ematen ez dizkion botereak (eskuduntzak, alegia), berauen egikaritzea Estatuak galerazita ez badute, Estatuak bakoitzari edo herriari dagozkio". Beraz, Estatuaren eskuduntza da araua, eta Federazioarena salbuespena, azken hau beti ere Konstituzio Federalean oinarritu behar delarik.
18. Konstituzio Federalak (1. artikuluko 8. atalak) Federazioaren legegilarenak, Kongresuarenak alegia, soilik edo eskusiboki diren eskuduntzak aipatzen ditu: besteak beste, zerga federalak, Federazioa osatzen duten Estatuaren arteko merkataritza (barne merkataritza alegia) eta kanpo merkataritza, nazionalitatea, porrota (bankruptcy), moneta sistema, posta zerbitzua, patenteak eta copyright-a (autore eskubideak), guda deklarazioa (declaration of war), indar armatuen ezarrera, itsas zuzenbidea, defentsa eta kanpo harremanak.
19. Horrela baieztatzen du MEADOR, D.J. *American courts*, St. Paul, Minnesota: West Group, 2000; 34. orrialdean. Honen adibide onena Merkataritza zuzenbidean daukagu: AEBetako Auzitegi Gorenak, Konstituzio Federalaren interpretazioaren arduradunak, beti interpretatu du berau Estatu desberdinetako Zuzenbideak amerikar barne merkatuari oztopoak ez jartzeko moduan. Zentzu honetan, Federaziolari Estatuaren arteko merkataritzaren eskuduntza aintzatesten dion *commerce clause* delakoak, Federazioaren eskuduntzei lagundu die Estatuaren eskuduntzen kaltetan. Puntu honi buruz, ikus RUIZ GÓMEZ, J.M. *La tendencia centralizadora del sistema federal de los Estados Unidos: evolución y causas*, Fundación Juan March, Serie Universitaria 222, Madril, 1981.
20. Honela deitzen diote FINK, H.P.; MULLENIX, L.S.; ROWE, T.D.; TUSHNET, M.V. *Federal courts in the 21st century: cases and materials*, Lexis Nexis, 2002; 2. orrialdean.
21. Askoren artean, ROTTMAN, D.B.; FLANGO, C.R.; CANTRELL, M.T.; HANSEN, R.; LAFOUNTAIN, N. *State court organization*, U.S. Washington, D.C.: Department of justice office programs, Bureau of Justice Statistic, 2000; 1. orrialdea.

beraien soldata gutxitzeko aukeraren debekua²³) aintzatesten zaizkie. Bi neurri hauekin, beste botereekiko independentzia bermatzen zaie. Mota honetako auzitegiak dira Kongresuak 1789an *Judiciary Act* legearen bitartez sortu zituen behe mailako auzitegi federalak, *District Courts*-ak, eta *Courts of Appeal* edo apelazio organoak.

Bestalde *federal legislative courts*-ak Kongresuak Konstituzio Federalaren 1. artikuluan oinarrituta²⁴ sor ditzakeen auzitegiak dira. Auzitegi hauetako epaileei ez zaizkie aipatutako bi pribilegioak aintzatesten —epe jakin baterako izendatzen dira eta ez zaie soldata ziurtatzen—; honela, epai organo hauen beste botereekiko independentzia aipatutako beste organoena baino ahulagoa da. Mota honetako organoak dira, besteak beste, geroago aztertuko ditugun *The U.S. Court of Appeals for the Armed Forces*, *The U.S. Tax Court*, *The U.S. Courts of Appeals for Veterans Claims*...

Honez gero, argi geratu behar da Konstituzio Federalak beren-beregi aurreikusten duen Auzitegi Gorena (*Supreme Court*) izan ezik, gainerako epai organo guztiak Kongresuaren lege bidez ezartzen diren heinean, bere legeen bidez aldatuak edo ezeztatuak ere izan daitezkeela.

Auzitegi federalak zeintzuk diren edo nola sor daitezkeen ikusi eta gero, azter dezagun orain zein den beraien eskuduntza. Zein kasutan eza-gutu dezakete? Honen harira esan behar Auzitegi federalek eskuduntza mugatua (*limited jurisdiction*)²⁵ dutela: Konstituzio Federalak berariaz emandako edo lege nagusi honek Kongresuari aintzatestitako eskumenak egikaritzean Kongresuak lege bidez ezarritako gaiez bakarrik ezagutu ahal izango dute. Bigarren hauek dira, hain zuzen ere, auzitegi federalen eskuduntza handiena ezartzen dutenak²⁶.

Konstituzio Federalak berak 3. artikuluko 2. atalean auzitegi federalen eskuetan gai jakin batzuk uzten ditu, bi irizpide nagusiri jarraituz: liskararen objektuari eta auzian dabilzanen pertsonalitateari. Horrela, Konstituzio honek auzitegi federalen esku-

mena ondorengoetara luzatzen du: 1) Konstituzio Federalak berak, AEBetako legeek eta sinatutako itunek edo sina ditzaketenek adierazitako zuzenbideko eta ekitazteko kasu guztietara (*federal question jurisdiction* deritzona). 2) Enbaxadore, beste ministro publiko eta kontsulei eragiten dieten kasu orotara. 3) Admirantazgo eta Itsas zuzenbideko kasu guztietara. 4) AEBak parte diren gatazka orotara. 5) Bi Estatu edo gehiagoren arteko liskarretara. 6) Estatu baten eta beste Estatu bateko herritarren arteko liskarretara (*diversity jurisdiction* deritzona). 8) Estatu bereko herritarrek beste Estatu batek egindako lur emakiden inguruan dituzten arazoetara, eta 9) Estatu baten edo bere herritarren eta beste atzerriko Estatu edo bere herritar edo subjektuen arteko liskarretara.

Edozein kasutan, auzitegi federalek beraien eskumenekoak diren gaien inguruan ematen diren kasu edo liskar juridikoak (*case or controversie*) bakarrik ebazten dituzte, beren lana betiere kasuok ebaztera zuzentzen delarik, inoiz ez errealitatean eman ez diren balizko arazo juridikoen inguruan iritzia ematera²⁷.

Auzitegi federal bereziaz aritzean egingo ditugun salbuespenak alde batera utzita, esan behar dugu AEBetan, Espainian ez bezala, ez dela ordena jurisdikzionalik eta berauei loturiko epai organorik desberdintzen. Auzitegi orok (*Supreme Court*, *Court of Appeal*, *District Court*) mota guztieta-ko arazoez (zibilak, penalak...) ezagutzen dute.

Auzitegi hauek AEBetako lurralde guztian zehar sakabanatuta daude Estatu bakoitzean, geroago aztertuko dugunez, gutxienez auzitegi federal bat dagoelarik, behe mailako *District Court* bat hain zuzen ere.

Azkenik, aipatu behar 1998. urtean 3.719 bilioiko aurrekontua²⁸ izan zuen auzitegi sistema federal honen arduraduna *The Chief Justice of the U.S.* dela. Presidenteak izendatzen duen azken hau, gainera, Auzitegi Gorenaren (*Supreme Court*) burua da, eta ardura administratibo ugari ditu, besteak beste *Judicial Conference of U.S.*²⁹,

22. Bizitza osorako lanpostu hori *impeachment process*-aren bidez bakarrik gal daiteke. Zentzu honetan ikus, ESPARZA LEIBAR, I. *"Impeachment" edo zentsura politikoa Iparramerikako Estatu Batuetan*, Eleria, Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria, 4. zenbakia, 1999.
23. Soldata gutxitzeko aukeraren debekuari buruz, ikus BALDWIN, S.E. *The American judiciary*, Florida: WMW Gaunt and Sons, Inc., 1991; 324. orrialdea eta ondorengoak.
24. Konstituzio Federaletako 1. artikuluko 8. atalak, Kongresuari Konstituzioak artikuluko bereko 1. atalean aintzatesten dizkion botereak egikaritzeko beharrezkoak dituen legeak egiteko boterea aintzatesten dio.
25. Estatuetak auzitegiek, berriz, ikusiko dugunez, lehen mailakoek normalean eskuduntza orokorra (*general jurisdiction*) daukate.
26. Horrela adierazten dute BODENHEIMER, E.; BILYEU OAKLEY, J.; LOVE, J.C. *An introduction to the anglo-american legal system. Readings and cases*, 2. argitalpena, Minnesota: West Publishing Company, 1990; 60. or.
27. Horrela baieztatzen dute YACKLE, L.W. *Federal Courts*, Durham, North Carolina: Carolina Academic Press, 1999; 188. or. eta FINK, L.S. ROWE, T.D. TUSHNET, M.V. *Federal courts in the 21st century: cases and materials*, bigarren argitalpena, Lexis Nexis, 2002; 2. or. Espainian, ideia bera, CUCHILLO FOIX, M. *Jueces y Administración en el federalismo norteamericano*, Madrid: Civitas, 1996; 202. or.
28. Munta hau Federazioaren aurrekontu osoaren bi hamarrena baino gutxiago da. Honela adierazten du BARNES, P.G. *Desk reference on American Courts*, Washington D.C.: Congressional Quarterly Inc., 2000; 34-35. orr.
29. Kongresuak 1922. urtean sortua, auzitegi federalen administrazioarako lerro nagusiak ezartzen dituen organoa da. Urtero gutxienez birritan biltzen da, eta, besteak beste, Kongresuan aurkezteko auzitegi federalen aurrekontua egiten du, justizia federalari buruzko legeak proposatzen dizkio Kongresuari, justizia federalaren funtzionamendua ebaluatzen du eta orokorrean aholkuak ematen dizkio Kongresuari. Berau, *The Chief Justice of the US*-az gain, *Federal Court of Appeal* bakoitzaren arduradun diren *Chief Judge*-ak, *The US International Court of International Trade*ko *Chief Judge*-ak eta *Judicial circuit* bakoitzeko *District Judge* batek osatzen dute.

*The Federal Judiciary Center*³⁰ eta *Administrative Office of the U.S. Courts*³¹-eko buru delarik.

2.2.2. District Courts

1789an *Judicial Act* deritzon Kongresuko lege bidez sortuan, hasieran 13 baziren ere, egun 94 daude AEBetako lurralde osoan zehar sakabanututa. Estatu bakoitzak gutxienez bat du, eta populazioaren arabera gehiago izan ditzake³². *District Federal of Columbia*-k, Puerto Ricok, Guamek, *Virgin Islands*-ek eta *Northern Mariana Islands*-ek bana dute³³.

Auzitegi hauek *trial court*-ak edo epaitze organoak dira: federazioko lehen auzialdia osatzen dute (*original jurisdiction*), beraien bidez kasuak epai sistema federalean sartzen direlarik. Berauek dira kasu gehien ezagutzen dituzten organo federalak³⁴, gehienetan kasuak behe mailako organo hauetan hasi eta bukatzen direlarik, geroko inolako helegite barik.

Beren eskuduntza, gainerako federazio auzitegiaren bezala, mugatua da, Konstituzio Federalak edo Kongresuko legeek aintzatezen dizkieten liskarrez baino ezagutzen ez dutelarik. Hala ere, orokorrean, Konstituzio Federalean, lege federaletan eta tratatuetan ezarritako Zuzenbide federalaren inguruko tirabirak ("*federal question jurisdiction*") ezagutzen dituzte, bai zibilak³⁵, bai penalak³⁶. Horretaz gain, Estatu ezberdinen arteko liskar juridikoak eta Estatu ezberdinetako herritarren arteko gatazkak ("*diversity jurisdiction*")³⁷ ebatzen dituzte, kasuok 75.000 \$-tik gorako balioa dutenean. Gainera, organo

administratibo federal batzuen erabakien aurkako helegiteak ere ezagutzen dituzte.

Lehen mailako epai organo hauek Estatu auzitegiek baino askoz kasu gutxiago ezagutzen dituzte. Adibidez, 1996. urtean 310.154 kasu zibil eta penal ezagutu zituzten –penalak, orotara, ez ziren aipatutako zenbakiaren % 20ra heltzen³⁸–, Estatu auzitegiek ezagutu zituzten 87,5 miloi kasuen aurrean³⁹.

Auzitegi hauetariko bakoitzean gutxienez epaile bat dago, baina askoz gehiago egon daitezke –adibidez, New Yorken 20tik gora daude–, orotara AEBetako lurralde osoan, organo hauetan aritzen diren 646 epaile, presidenteak izendatuak eta Senatuak berretsiak, daudelarik⁴⁰. Gainera, epaile hauei laguntzen, aipatutako kopurutik kanpo, *senior judge*-ak aritzen dira. Azken hauek erretiratutako epaileak dira, 70 urtetik gorakoak, normalean lansaio murriztuan (*part-time*) aritzen direnak⁴¹.

Epaile hauek, kasuak ezagutzeko, banaka aritzen dira, baina, diskrezionalitatez erabakita, eta praktikan oso-oso gutxitan, garrantzitsutzat hartzen dituzten kasuak hiru epailek (*en banc*) ezagutzen dituzte⁴².

Federazio auzitegi guztietatik, hauetan bakarrik egiten dira frogak (*evidence*), batez ere abokatuek lekukoak amerikar filmetan hain gartsu ematen duten galdeketetara meneratzen dituztelarik. Gainera, auzitegi hauetan legeak ezarritako salbuespen gutxi batzurekin, zinpeko bat aritzen da bai zigor kasuetan (Konstituzio Federalaren 6.

30. Kongresuak 1967. urtean justizia administrazioa hobetzeko sortutako organo administratibo honek (*agency*), justizia arloan ikerketak, *Judicial Conference*-ari proposamenak, heziketa programak... egiten ditu. Honi buruz, ikus EBERSOLE, J.L. *The federal judicial center: a nontraditional organization in the federal judiciary of the USA*, Washington, D.C.: Washington Federal Judicial Center, 1980.
31. Funtzio administratiboak dituen organo hau, batik bat auzitegi estatistikez eta aipatutako beste organoei laguntza emateaz arduratzen da.
32. *District Court* bat baino gehiago dituzten lurraldeak *district* edo *division* desberdinetan banatzen dituzte, horietako bakoitzean *District Court* bat dagoelarik. Ondorengo Estatuak *District Court* bat dute: Maine, Massachusetts, New Hampshire, Rhode Island, Puerto Rico, Connecticut, Vermont, Delaware, Maryland, North Dakota, South Dakota, Alaska, Arizona, Hawaii, Idaho, Montana, Nevada, Oregon, Colorado, Kansas, New Mexico, Utah eta Wyoming-ek. Beste Estatu batzuek bi dituzte, hala nola Virginia, Mississippi, Kentucky, Michigan, Ohio, Indiana, Wisconsin, Arkansas, Iowa, Missouri eta Washington Estatuak. 3 dituzte Pennsylvania, North Carolina, Louisiana, Tennessee, Illinois, Oklahoma, Alabama, Florida eta Georgiak, eta 4, berriz, New Yorkek, Texasek eta Californiak.
33. Hauetan dauden lehen mailako auzitegi federal hauek, nahiz eta *District Court* deitu, benetan *territorial courts*-ak dira. Kongresuak sortu zituen lehen *legislative courts*-ak dira eta, gainerako organo federalak ez bezala, arazo federalez gain, lurralde horietako barmen liskarrek ere ezagutzen dituzte. *Territorial courts* hauei buruz gehiago, BARNES, P.G. *Desk reference on American courts*, Washington, D.C.: Co Press, A Division of Congressional Quarterly Inc, 2000; 98. or.
34. Honela baieztatzen dute, CALVI, J.V.; COLEMAN, S. *American law and legal systems*, laugarren argitaralpena, New Jersey: Prentice Hall, Upper Saddle River, 2000; 45. or.
35. Kode Judizialaren ("*Judicial Code*") 1.331. atalak dioenez, *District Courts*-ek Konstituzio Federalaren, lege federalen eta tratatuen inguruan sorturiko akzio zibil guztien gaineko lehen auzialdiko eskumena izango dute.
36. Zigor Kode Prozesalak 3.231. atalean dioenez, auzitegi hauek, Estatuetakoa auzitegien gainetik, lehen auzialdiko eskumen eksklusiboa izango dute AEBetako lege federalen kontrako delitu orotan.
37. Kode Judizialaren 1.332. atala.
38. Administrative Office of the USA Courts, *Federal judicial caseload satisfaction*, Washinton, D.C.: Government Printing Office, 1997; 8. orrialdetik ateratako datua.
39. OSTROM, J.B.; KANDER, N. (editors), *Examining the work of State Courts: a national perspective from the Court Statistic project*, Williamsburg, V.A.: National Center for State Courts, 1997; 7. orrian agertzen den datua.
40. *Administrative Office of the USA Courts*-aren web helbidetik (www.uscourts.gov) ateratako datua.
41. Epaile hauei buruz, ikus Federal Judicial Center. *Benchmark for the US District Court judges*, 4. argitaralpena, Washington D.C.: Federal Judicial Center, 2000.
42. Kasu hauek zuzenean *Supreme Court*-ean helegin daitezke.

Emendakina) bai liskar zibiletan (7. Emendakina). Zinpeko honek, arbitro lana eginez, egitateak baloratzen ditu, eta epailearen laguntzaz egitate hauei Zuzenbidea aplikatzen die. Organo hauen erabakiak *Courts of Appeal*-etan helegin daitezke.

District Court hauekin bukatzeko, hauetan agertzen diren *Bankruptcy Court*-ez (porrot auzitegiak) hitz batzuk esan behar ditugu.

Jimmy Carter presidentearen garaian, 1978an, *Bankruptcy Reform Act* Legearen bidez, porrotaren inguruko gaiak *District Court*-ei kendu eta hauen barnean sortutako *Bankruptcy Court*-ei esleitu zitzaizkien eskusibotasunez.

Legislative court-ak, Konstituzio Federalaren 1. artikulua araberan sortuak, *District Court* bakoitzak mota honetako auzitegi bana (*bankruptcy unit*) dauka. Berauek, federazio-ko *bankruptcy law*-an (Porrot zuzenbidea) oinarrituz norbanakoek zein enpresek eragindako kasuak ezagutzen dituzte.

Auzitegi *unit* hauetan, epaileek –beraien lurraldeari dagokion *Court of Appeal*-ak izendatua– kasuak banaka ezagutzen dituzte.

Trial court-ak (epaitze organoak, alegia) izanik, beren erabakiak *District Court*-etan edo *Appellate Court*-etan helegin daitezke. Azken hauen erabakiak, berriz, Auzitegi Gorenean errekurri daitezke.

2.2.3. *Federal Appellate Courts*

1789ko *Judicial Act* Legearen bidez sortuak, hainbat aldaketa pairatu ondoren 1948. urte-rik aurrera *Appellate Court* izenarekin ezagutzen diren hauek, beraien historiaren memento batean *circuit court* bezala antolatuta egon baziren ere –beren epaileak auzitegiaren barrutia (*circuit*) osatzen zuen lurraldean barna kasuak ebazten ibiltzen ziren,– egun egoitza finko bat daukate.

Organo hauek burutzen duten lanari so eginez, abokatu amerikarrek *intermediate appellate court* deitzen diete, behe mailako *District Court* eta goi mailako *Supreme Court*-aren artean daudelako.

Beraz, hiru izenekin izendatzen bada ere (*Federal Appellate Court*, *Circuit Court* eta *Intermediate Appellate Court*), epai organo berberaren aurrean gaude: apelazio helegiteak ezagutzen dituen erdimailako auzitegi federalaren aurrean, alegia.

Auzitegi hauen eskuduntzari ekin orduko, ikus dezagun organo hauek AEBetako lurraldean zehar nola antolatzen diren.

13 *Courts of Appeal* daude osotoro: 11 *Circuit Courts of Appeal* –ikusiko dugunez, bako-

tza zenbaki ordinal batez izendaturik–, *District of Columbia Circuit* eta *The Court of Appeal for the Federal Circuit*.

Circuit-a apelazio organo federalak bere eskuduntza egikaritzen duen lurralde eremua da. 1. *Circuit*-ak Bostonen dauka kokagunea eta bertan 6 epailek Maine, Massachusetts, New Hampshire eta Rhode Island Estatu- eta Puerto Ricoko lurraldeko *District Court*-en aurkako helegiteak ezagutzen dituzte.

Bigarren *Circuit*-ak New Yorken dauka egoitza finkoa. 13 epailek New York, Connecticut eta Vermonteko *District Court*-en aurkako helegiteak erabakitzen dituzte. Apelazio organo honek, bere kokapena dela eta –AEBetako merkataritza gunerik garrantzitsuena–, Merkataritza zuzenbide-ako hainbat liskar ezagutzen ditu.

Hirugarren *Circuit*-eko apelazio organoak, aldiz, Philadelphian du egoitza, eta bertan Delaware, New Jersey, Pennsylvania eta Virgin Islands-eko *District Court*-en erabakien aurkako helegiteak ebazten dituzte 14 epailek.

Laugarren *Circuit*-a Richmonden aurkitzen da eta bertan 15 epailek Maryland, North Carolina, South Carolina, Virginia eta West Virginia Estatu- eta *District Court*-en aurkako helegiteak aztertzen dituzte.

17 epailek berriz, New Orleansen kokatuta dagoen 5. *Circuit*-ean, Louisiana, Mississippi eta Texaseko *District Court*-en aurkako apelazio helegiteak erabakitzen dituzte.

Seigarren *Appeal Court*-ean aldiz, Cincinnati, Kentucky, Michigan, Ohio eta Tennessee Estatu- eta *District Court*-ek emandako ebazpenen aurkako apelazioak ezagutzen dituzte 16 epailek.

Epaile gutxiagok, hamaikak hain zuzen ere, Chicagon kokatuta dagoen 7. *Circuit Court of Appeal*-ean lan egiten dute, Illinois, Indiana eta Wisconsin-eko *District Court*-ek emandako erabakien kontrako apelazioak ebartziz.

8. *Circuit Court of Appeal*-ean, Saint Louis-eko bere egoitzan, 11 epailek, Arkansas, Iowa, Minnesota, Missouri, Nebraska, North Dakota eta South Dakotako *District Court*-en ebazpenen kontrako helegiteak ebazten dituzte.

Epaile kopuru oso handia, 28 hain zuzen ere, aritzen dira 9. *Circuit Court of Appeal*-ean, San Fransisgotik, Alaska, Arizona, California, Hawaii, Idaho, Montana, Nevada, Aragon, Washington, Guam eta Northern Mariana Islands-eko *District Court*-en aurkako helegiteak ezagu-

tzen. *Circuit* honek AEBetako lurralde eremurik handiena hartzen du.

Denverren kokatua, 10. *Circuit*-ean, 12 epailek Colorado, Kansas, New Mexico, Oklahoma, Utah eta Wyoming Estatuetako *District Court*-en kontrako helegiteak ezagutzen dituzte.

Zenbaki ordinalaz izendatutako azken apelazio organoan, 11. *Circuit Court of Appeal*-ean, 12 epailek Alabama, Florida eta Georgiako *District Court*-en aurkako errekurtsioak ezagutzen dituzte.

Aipatutakoez gain, *Columbia District Circuit*-a ere kontuan hartu behar dugu. Lurralde esparru txikiena hartzen duen apelazio organo hau Washington, D.C.n dago, eta bertan 12 epaile arazo administratibo ugari ezagutzen aritzen dira⁴³.

Azkenik, *U.S. Court of Appeal for The Federal Circuit* aipatu behar dugu. *Court of Claims* eta *Court of Customs and Patent Appeals* bat egin zituen 1982ko apirilaren 2ko lege bidez sortua, berau ere Washinton D.C.n kokatua, 12 epailek AEBetako lurralde osoko apelazio jakin batzuk ebazten dituzte⁴⁴, batez ere patenteekin erlazionatutako gaietan.

Ikusten dugunez, *Circuit* guztiek, Columbiako *District*-ekoak izan ezik, Estatu bat baino gehiago biltzen dituzte beren barne, kopuru hau desberdina izanik, hiru Estatutik (bigarren, bosgarren, zazpigarren eta hamaikagarren *Circuit*-ek) bederatzigarren (bederatzigarren *Circuit*-ak⁴⁵) joanik.

Circuit bakoitza Auzitegi Goreneko epaile batek ikuskatzen du.

Auzitegi hauen lanean murgilduz, esan behar da Auzitegi Gorenari lan karga edo zama arintzeko sortuak direla, eta, jada aipatu izan dugun bezala, *District Court*-en aurkako helegiteak ezagutzen dituztela⁴⁶. Horrez gainera, sasi-epaile funtzioak dituzten *federal agency*-en (administrazio organoak, hala nola *Interstate Commerce Commission*, *National Labor Relations Board*, eta *Securities and Exchange Commission*) ebazpenen kontrako helegiteak ezagutzen dituzte. Horrela, kasu administratibo hauek, maila hone-

tan, apelazio organoetan alegia, epai antolaketa federalean sartzen dira, beheko organoak ekiditen dituztelarik.

Apelazio organo hauen eskuduntza derrigorrezkoa da (*mandatory jurisdiction*): legearen arabera edo honen agindupean heltzen zaizkion kasu guztiak ebatzi behar dituzte.

Auzitegi hauetan, orotara, Gobernu Federaleko presidenteak izendatu eta Senatuak berretsi dituen 179 epaile daude. Jada aipatu dugun bezala, 13 apelazio organoek epaile kopuru desberdina dute, lehenengo *Circuit*-eko 6 epailetik 9. *Circuit*-eko 28 epailera bitartean⁴⁷. Epaile hauek ere, *senior judge* deritzen epaile erretiratu laguntza dute⁴⁸.

Epaile hauek, kasuak ebazteko, normalean *panels* deritzen hiru epailez eratutako taldeetan aritzen badira ere, diskrezionalitatez erabakitako kasu batzuetarako *Circuit*-a osatzen duten epaile guztiak bil daitezke (*en banc*)⁴⁹.

Edozein kasuren aurrean, epaile hauek bista (*oral arguments*) ospatu edo ez erabaki behar dute lehendabizi. Eskutan duten kasuaren antzekorik jadanik ebatzi badute, ez da bistarik egingo. Bista ospatuz gero, alderdien abokatuei beren argumentuak azaltzeko 10 minutu edo gutxiago ematen zaizkie. Tarte honetan, abokatuak aurretiaz epaileei aurkeztutako idazkian (*brief*) bildutako argumentazio juridikoak eta epaileen aurrekariak (*judicial precedents*) azalduko dituzte beren ordezkartuen defentsan. Abokatuok epaileek egindako galderei erantzun beharko diete.

Bigarren auzialdi honetan ez da ez lekukorik ezta zinpekorik ere onartuko, eta, erabakia emateko, hiru epaileetatik bik ados egon beharko dute. Epailerik adintsuena (*senior* deritzona) izango da azken erabakia idaztearen ardura hartuko duen epailea izendatuko duena. *Dissenting opinions* eta *concurrent opinions*-ak –boto partikularrak alegia: lehen kasuan, ebazpenaren zentzuarekin kontraktasuna adieraziz, eta, bigarrenean, nahiz eta zentzu horrekin bat etorri, bere arrazonamenduaren kontra joz– zilegiak dira.

Court of Appeal hauek beheagoko auzitegien okerrak zuzentzen dituzte, Zuzenbidea nola

43. Hau normala da, Gobernu Federala eta Administrazioaren *agency* asko bertan daudelari erreparatzen badiogu.

44. Hala nola, *U.S. Court of Federal Claims*, *U.S. Court of International Trade*, *U.S. Court of Veterans Appeals*, *International Trade Commission*, *The board of contract appeals*, *The patent and trademark office*, *Merit Systems Protection Board*, Nekazaritza eta Merkataritza departamentuek eta *Federal District Court*-ek patentei buruz emandako erabakien kontrako helegiteak ezagutzen ditu.

45. Sakontzeko, ikus COHEN, J.M. *Inside Appellate Courts: The impact of court organization on judicial decisions making in the USA Courts of Appeals*, Ann Arbor, University of Michigan Press, 2002.

46. Beren lanaren %90 suposatzen du.

47. Kopuru hauek *Administrative Office of the USA Courts*-en web orritik (www.uscourts.gov) aterata daude.

48. Honen harira, ikus COVER, R.M.; FISS, O.M.; RESNIK, J. *Procedure*, New York: The foundation Press, 1998; 21-25 orr.

49. Bederatzigarren *Circuit*-a hain handia izanik bere epaile kopurua kontuan hartuta (28, hain zuzen), bertan 11 epailek osatzen duten *banc* delakoa. Epaile hauek taldeka nola lan egiten duten ikusteko, ikus MATHEW COHEN, J. *Inside Appellate Courts*, The University of Michigan Press, 2002; 22-37 orr.



“Golden Gate”, San Francisco. Argazkia: Hugo Casado, 2002.

aplikatu duten soilik aztertzen dutelarik. Inoiz ez dituzte lehen auzialdian onetsi eta finkatutako egitateak berrikusiko. Hau horrela izanda, hanka sartzeko beldurrik gabe esan daiteke Espainian gertatzen den bezala, apelazio helegitea mugatua dela AEBetako epai antolaketa federalean ere.

Beren lana burutzean, epai organo hauek beraien lurralde mailan Zuzenbidea interpretatzeko irizpideak ezartzen dituzte⁵⁰. Honetaz aparte, oinarrizko eskubideak babestu eta bermatzen dituzte. Azken lan honen garrantziaren adierazle gisa, 5. *Circuit*-ak ezagututako kasu bat (Hopwood v. Texas [1996]) aipatzea merezi du. Texas Law School University-k, ikasleak hartzeko orduan, beltzei eta mexikarrei lehentasuna ematen zien, mota honetako ikasle tasa handitu nahieran. Norbait neurri honekin ados egon ez, eta *Supreme Court*-ean salatu zuen, baina azken

honek ezetza eman zion kasuaren azterketari⁵¹. Kasua New Orleansen kokatuta dagoen aipatutako 5. *Circuit*-ak ezagutu ondoren, organo honek aipatutako unibertsitatearen jardura bereizkari-tzat (14. Emendakinean esanbidez debekatua) hartu zuen. Honela, argi geratzen da *Supreme Court*-ak kasuak aukeratzeko duen askatasunetik abiatuta, apelazio organo hauek oinarrizko esku-bideen eremuan ere zeresan handia dutela.

Edozein kasutan, eta organo hauekin bukatzeko, garrantzitsua da beraien erabakiaren ondorioz kasuak berriro *trial court*-era, lehen auzialdira, epaiketa errepikatuzera alegia, bidal daitezkeela azpimarratzea.

Apelazio organo hauen erabakiak *Supreme Court*-ean helegin daitezke, nahiz eta praktikan aukera hau oso gutxitan gauzatzen den⁵².

50. Zentzu honetan, *policy-maker* direla esan ohi da. Honi buruz, ikus MAIS, G.L.; GREGWARE, P.R. *Courts and justice*, Illinois: Waveland Press, The Prospects Heights, 1995; 53. orrialdea eta ondorengoak.

51. Laster ikusiko dugunez, Supreme Court edo Auzitegi Gorenak ebartziko dituen kasuak aukeratzeko askatasun osoa du.

52. Erabaki hauek liburuetan publikatzen dira, gure jurisprudenzia bildumen antzera, eta beraiek dira Zuzenbideko ikasleen materialik garrantzitsuenak. Puntu honetan berriro gogora ekarri behar AEBetako Zuzenbidean *case law* edo kasuan kasuko erabakiak duen garrantzia. Erabaki hauei buruz, ikus KUERSTEN, A.K. *Decisions on the US Courts of Appeals*, New York: Garland Pub., 2001.

2.2.4. *The Supreme Court*

AEBetako Auzitegi Gorena, epai egitura federalaren eta Estatu guztien auzitegi antolaketa-aren gainetik dagoen epai organoa izateaz gain, Konstituzio Federalak beren beregi aintzatesitako epai organo bakarra da⁵³. Hala ere, Konstituzioak ez ditu bere barne antolamendua, kide kopurua, prerrogatibak... arautzen; berehala ikusiko dugunez, bere eskumenen inguruko gutxiengo batzuk ezarri ondoren, bere arauketa zehatza Kongresuaren esku uzten du. Honen argitan, 1789ko otsailaren 2ko *Judiciary Act* izan zen lehen aldiz gorengo epai organo honen antolaketaz arduratu zena. Egun, 1999ko *Rules of The Supreme Court of the United States* deituriko Kongresuaren legean bilduta dago amerikar Auzitegi Gorenaren eraentza juridikoa.

Washington, D.C.n, Capitoll Hill eraikinean kokatzen den auzitegi hau 9 epailek osatzen dute, guztien buru den *Chief Justice*-a eta 8 *associate justice*-k⁵⁴. Presidenteak izendatuak, denek Senatuaren berrespena dute.

Auzitegi honetako epaile kopurua egungo zenbakira heldu arte, 6 eta 10 bitartean aldatuz joan da. 1948ko ekainaren 25eko kongresuaren legeaz geroztik, 9 izan dira beti organo honetan zerbitzatu izan duten epaileak⁵⁵.

Puntu honetan, gogora ekarri behar dugu, apelazio auzitegiak aztertzean esan genuen bezala, epaile hauetariko bakoitzak gutxienez *Appeal Circuit* baten ardura duela. Gainera, beren lanean, epaile hauek *court officers* deritzenen laguntza dute.

Zertaz ezagutzen du Amerikako Auzitegi Gorenak? Bere eskuduntzakoak diren gaiak ezagutzeko, Konstituzio Federalera (3. artikuluko 2. atala) eta honen garapenerako egin diren Kongresuaren legeetara (batez ere Epaiketa Kode Federalaren 1251 eta 1258 atalak bitartean) jo behar dugu.

Konstituzio Federalak 3.2 artikuluan lehen auzialdian (*original jurisdiction* edo *non-appellate jurisdiction*) zenbait kasu ezagutzeko eskumena aintzatesiten dio, hala nola, enbaxadore, beste

ministro publiko eta kontsulengan eragina duten kasuak eta Estatuak parte diren liskar guztiak ebazteko⁵⁶.

Honen islan, eta praktikan benetan garrantzitsua, *Supreme Court* honek Federazioaren eta Estatu baten edo Estatu desberdinen arteko liskarretan lehen auzialdiko eskumena du. Kasu hauek Auzitegi Gorenak hasieratik azkeneraino ezagutuko ditu.

Gainera, Konstituzioaren 3.2. artikuluko horrek, auzitegi federalen (normalean *Court of Appeal*-en erabakien⁵⁷) eta Estatuetakoa auzitegien aurkako apelazio helegiteak ezagutzeko eskumena aintzatesiten dio "kongresuak ezar ditzakeen salbuespenekin". Beraz, kasu honetan ere, Kongresuko legeetara jo behar dugu *Supreme Court*-aren apelazio jarduera zein kasutan egikari daitekeen jakiteko.

Gaia, Epaiketa Kode Federalaren 1251, 1253, 1254 eta 1257-1259 atalak bitartean arautzen da. Aipatutako atal hauetatik guztietatik 1257.a da funtsezkoa, berak esaten baitu zein hiru kasutan ezagutuko duen Auzitegi Gorenak helegiteez. Hiru kasuak ondokoak dira: (1) AEBetako itun edo lege baten baliozkotasuna zalantzan dagoenean, (2) edozein Estaturen lege baten baliozkotasuna, Konstituzio Federalaren, itunen edo AEBetako legeen aurka doalaren susmopean, zalantzan dagoenean, eta (3) edozein titulu, eskubide, pribilegio edo immunitate, edo AEBetan sortutako edo egikaritutako edozein batzorde, Konstituzioaren, itunen edo legeen islan, bereziki zalantzatan jartzen denean.

Beraz, argi geratzen da *Supreme Court* honek apelazioan ezagutuko dituen kasuak mugatuak direla⁵⁸.

Apelazioaz –eta baita ere dagokionean lehen auzialdian– ezagutzen duen heinean, *Supreme Court*-ak legeak interpretatzen ditu⁵⁹, eta Amerikar Estatu Batuetako lurralde osoko gorengo mailako auzitegia izanik, berak du Konstituzio Federala, Estatuetakoa Konstituzioak, lege federalak, Estatu desberdinetako legeak eta AEBek sinatutako itunak interpretatzean azken hitza⁶⁰. Azken gogoeta honek galdera batera era-

53. Konstituzio Federalaren 3. artikuluko 1. atalean. Hau horrela izanik, zuzenean Konstituziotik jasotako legitimitatea duen epai organo bakarra dela esan ohi da.
54. *Chief Justice of USA*-ri buruz arinago mintzatu gara. Aipatu behar da egungoa Ronald Reagan presidenteak izendatu zuela 1986. urtean, eta William H. Rehnquist deitzen dela. 8 *Associate Justice*-ak ondorengoak dira: John Paul Stevens, Sandra Day O'connor, Antonin Scalia, Anthony M. Kennedy, David H. Souter, Clarence Tomas, Ruth Bader Ginsburg eta Stephen G. Breyer.
55. *Supreme Court* honen historiari buruz eta bere epaile aldaketetz, ikus LEWIS, T.T.; WILSON, R. (editors), *Encyclopedia of US Supreme Court*, Pasadena, California: Salem Press, 2001.
56. Zentzu berean, Epaiketa Kode Federalaren 1251. atala.
57. *District Court*-enak bakarrik azken honetako epaileak kasuak *en banc* ebazten dituztenean.
58. Zentzu honetan, ikus CURRIE, D.P. *Federal jurisdiction*, laugarren argitalpena, St Paul, Minnesota: University of Chicago, 1999; 197. orrialdea eta ondorengoak.
59. Zentzu honetan, *policy-maker* dela esaten da eskubideak sortu eta babesten dituelako.
60. Oso adierazgarriak dira CARP, R. *The federal courts*, Washington, D.C.: D.C. Press, 2001; 4 eta 5 orrialdetan esaten dituen hitzak: "organo hau da (*Supreme Court*-ari buruz) (...) legeriaren interpretatzaile gorena eta (...) Estatu ezberdinen eta Federazioaren arteko oreka mantentzearen arduraduna (...), herritarren eskubide eta eginbeharrak errespetarazten dituelarik".

maten gaitu: beraz, eta esandakoaren arabera, Auzitegi hau al da AEBetako Auzitegi Konstituzionala? Galdera honi erantzuteko aurretiaz zenbait ohar egin behar ditugu.

Ziur asko, denok dakigunez, konstituzionaltasun kontrolaren kabia AEBak beraiek dira. John Marshall, Adams presidentea izendatutako eta *Supreme Court*-aren historian honen hirugarren *Chief Justice* izan zena, izan zen konstituziotasun kontrola ezarri zuena, denontzat aski sonatua den *Marbury v. Madison* (1803)⁶¹ kasuaren ebazpena. Kasu honetan, gainerako beste bi botereetatik independientea zen epai botere nazional bat babesteko *Judicial review power*-aren teoria formulatu zuen. Teoria honen esanetan, AEBetako ordenamendu juridikoaren arau gorena Konstituzio Federala den heinean, beronek hiru botereak behartzen ditu, eta epai botereari, berau legearen interpretatzaile den heinean, dagokio Konstituzioa betetzen delaren ardura. Horrela, alderdien eskubide bat Konstituzioaren aurka doan lege batetik eratorria bada, Marshallen esanetan auzitegien betebeharra lege hori alde batera uztea eta Konstituzioaren nagusitasuna bermatzea da. Testuinguru honetan, Marshallék auzitegi guztiak, Federalak eta Estatu desberdinetakoak, legeek Konstituzioa errespetatzen zuten edo ez aztertzea baimendu zituen.

Ondorioz, AEBetako auzitegi guztiak, Federalek zein Estatu desberdinetakoek, legeen konstituziotasun kontrola egin dezaketelari erreparatuz, *Supreme Court*-a Espainiako Konstituziotasun kontrolaren eredutik, eta zioz bertako Auzitegi Konstituzionaletik aldentzen dela badirudi ere, azken finean AEBetako epai organoetatik gorena dela azpimarratuz, bera dela presidentea, Kongresua edo Estaturen bat Konstituzioaren mugetatik haratago aritu direla baieztatu dezakeen azkena, Auzitegi Konstituzional baten funtzioa betetzen duela baieztatu genezake⁶².

Auzitegi honen eskuduntzak alde batera utzita, azter dezagun orain nola egiten duen lan. Honen harira, jadanik aipatua den datu garrantzitsu bat ekarri behar dugu gogora: *Supreme Court*-ak diskrezionalitate osoz (*discretionary jurisdiction*) aukeratzen ditu ebartziko dituen kasuak. Hau ez da betidanik horrela izan; izan ere, 1789ko legearekin bat, auzitegi honi bere aurrean aurkezten ziren azken mailako apelazio

guztiak ezagutzea zegokion (*mandatory jurisdiction*), benetan lan zama handia zuelarik. Iragarri dugun bezala, egoera zeharo desberdina da 1925ko Kongresuko legeaz geroztik: egun, auzitegi honek kasu bat ezagutu dezan, interesatuak berriazko eskaera bat egin behar dio. Eskaera honen aurrean auzitegi honek, logikoki, bi aukera ditu: eskaera gaitzestea, ez duelarik gaitzespen hori arrazoitu behar, edo onartzea. Azken kasu honetan, auzitegiak *write of certiorari*⁶³ delako idazki baten bitartez, kasua ezagutuko duela esanez behe mailako auzitegiei kasu hortaz duten informazio eta izapidetza guztia igortzeko aginduko die. Normalean, idazki hau emateko gaiaren garrantziari erreparatzen diote, eta batez ere federazio mailan eragin handia izan dezaketen kasuak (*substantial federal question*) edo apelazio auzitegi desberdinen irizpideak elkartzeko aukera ematen duten kasuak ezagutzen dituzte.

Urtero milaka eskari egoten badira ere, *Supreme Court*-ak ezagutzen dituen kasuen kopurua ez da ehunera heltzen.

Organo honen lan urtea urriko lehenengo asteleheneetik uztailaren bukaerara arte doa, nahiz eta epe honetatik kanpo ezohiko egoeretan biltzeko aukera aintzatesten zaion.

Bere lanean, oro har, hiru fase desberdin genitzake:

(1) *Oral arguments*: bi asteko aldietan, asteleheneetik asteazkenean, kasuak entzuten dituzte. Normalean, lehenengo auzialdian ezagutzen ez dituzten kasuetan, helegiteez ezagutzen dutenez, ez dituzte lekukoak entzuten. Ez dago zinpekorik. Epailak 30 minutuz alderdi bien abokatuek beraien ordezkatuak defentsan azaltzen dituzten argudioak entzuten dituzte. Epailak egoki irudituz gero, edozein mementotan galderak egiteko eskubidea aintzatesten zaie.

(2) *The Conference*: asteko beste bi egunetan, ostegun eta ostiralean alegia, asteko lehen hiru egunetan entzundako kasuez eztabaidatu eta beraiek ebazteko beharrezko ikerketak egiten dituzte. Erabaki bat hartu ahal izateko, *quorum*-a egoteko, 6 epaile behar dira. Erabakia, berriz, gehiengoz hartzen dute, berdinketa ematean (beraietako baten bat gaixorik dagoelako, edo beste edozein arrazoigatik *conference* honetara

61. Kasu honetan, hainbestetan aipatu dugun 1789ko *Judicial Act*-aren 13. artala Konstituzioaren aurkakoa deklaratu zuen, atal honek *Supreme Court*-ari Konstituzio Federalaren 3. artikuluan aintzatesitako baino eskumen zabalagoa ematen ziola arrazoituz. Nahiz eta kasu hau izan entzutetsuena, beste batzuk ere antzeko zentzuan ebazti zituen Marshallék: *Fletcher v. Peck* (1810), *Martin v. Hunter's Lessee* (1816) eta *Cohens v. Virginia* (1821), besteak beste. Azkenik, eta bitxikeria moduan, aipatu behar Konstituzio kontrolaren jatorria beti *Marbury v. Madison* ebazpenean jartzen bada ere, urte batzuk arinago North Carolina Estatuak *Boyard v. Singleton* (1787) kasuan kontrol hau aurreikusi zuela.

62. Horrela baieztatzen dute MEADOR, D.J. *American courts*, bigarren argitalpena, St Paul, Minnesota: West Group, 2000; 3. orrialdean eta WOODFORD, J. *Courts of appeals in the federal judicial system: a study of the second, fifth and District of Columbia Circuits*, Princeton, N.J.: Princeton University Press, 1981; 76-79 orr.

63. "Segurtasuneko idazki" honetan, Auzitegi Gorenak kasuaren ezagutzea zuzitzen duten *special and important reasons* (arrazoi berezi eta garrantzitsuak) emango ditu. Kasua ezagutzeari baieztasuna emateko, 9 epaileetatik 4k horren alde egon behar dute (*rule of four* deritzona).



"Liberty Statue", New York. Argazkia: Hugo Casado, 2002.

agertu ez delako) behe mailako auzitegiaren erabakia mantentzen dutelarik.

(3) *Opinion writing*⁶⁴: erabakia hartu eta gero, erabaki hau idatzi egin behar da. *Chief Justice*-a gehiengoarekin, gailendutako iritziarekin, bat badator, berak edo berak agindutako norbaitek –hau da normalena– idatziko du; gutxiengoarekin badago, aldiz, *senior judge* edo epailerik zaharrenak izendatzen duenak idatzi beharko du. Hemen ere boto partikularrak onartzen dira, bai erabakiaren kontrako zentzuan (*dissent opinion*), bai erabakiaren zentzuarekin bat egonda, beronen arrazonamenduarekin bat ez eginez (*concurring opinion*) emadakoak.

Bildumetan argitaratzen diren erabakiok finkoak eta irmoak dira, heleginezinaz azken finean. Berauen kontra joateko bide bakarra, Konstituzio Federalak alda dezan emendakin bat egitea da.

2.2.5. Beste auzitegi Federal batzuk

Oraingo honetan, beste auzitegi federal batzuk aipatu eta beren ezaugarri nagusiak laburbilduko ditugu. Betiere, jadanik aipatutako datu bat kontuan izan behar dugularik: auzitegiak Kongresuko legez bakarrik sor daitezkeela⁶⁵.

2.2.5.1. *The United States Tax Court*

1924an sortua, hasiera batean *The US Board of Tax Appeals* deituriko organo administratiboa izan zen. 1969an, egun duen izena jarri eta bere *status*-a aldatu zitzaion, Konstituzio Federaletako lehenengo artikulua araberako *legislative court* bihurtu zelarik.

Washington D.C.-n kokatuta, presidentek izendatu eta Senatuak berretsitako 19 epailek zerga federalen inguruko arazo juridikoak ezagutzen dituzte lehen auzialdian (beraz, *trial* edo epaitze organoa da). Batez ere, AEBetako lurralde osoan zerga federalen zerbitzu biltzaile (*Internal Revenue Service*) eta zergapetuen (*taxpayers*) arteko liskarrak konpontzen dituzte.

Beren erabakiak kasuan kasuko *Circuit Court of Appeal*-ean helegin daitezke⁶⁶.

2.2.5.2. *The United States Court of International Trade*

1980an Kongresuak sortua, *constitutional court* honek⁶⁷ lehen auzialdian (*trial court*) nazioarteko merkataritzaren inguruko liskar juridikoak ebazten ditu.

New Yorken kokatua, 9 epaile nazioarteko merkataritzaren inguruan AEBetako Estatu guztie-

64. Nahiz eta horrela deitu, gogoratu, arinago aipatu dugun legez, auzitegiek ez dituztela iritzia ematen, bakarrik beraien aurrean planteaturiko kasuak ebazten dituztela.

65. NELLBAVER, D.W. *Judicial process: law, courts and politics in the USA*, 2. argitaralpena, New York: Harcourt Brace College Publishers, 1997; 72. orrialdean.

66. Auzitegi honi buruz sakontzeko, HUFFMAN, W.F. *US tax court practice and procedure guide*, Michie Co, Charlottesville, VA, 1990.

67. Konstituzio Federalaren 3. artikulua araberako sortua, beronen epailei aipatutako babes berezia ematen zaie.

tan eskudunak dira. Beren erabakiak *United States Court of Appeals for The Federal Circuit*-ean helegiten dira⁶⁸.

Bitxikeria moduan esan, aipaturiko auzitegi honetan, nazioarteko gaiak ebaztean, Estatu desberdinetako jendea entzuteko aspaldidanik erabiltzen direla bideokonferentziak.

2.2.5.3. *The Court of Veterans Appeals*

Legislative Court hau Ronald Reaganen garaian, 1988ko azaroan sortu zen, AEBek parte hartu duten guda desberdinetatik onik, bizirik alegia, ateratako soldatuek (*veterans and survivors*) *Board of Veterans Appeals* deritzon organo administratiboaren aurrean egindako eskariei erantzuten dizkieten ebazpenen⁶⁹ helegiteak ezagutzeko.

Washington, D.C.-n kokatuta, honetan presidenteak izendatu eta Senatuak berretsitako 7 epailek ematen dituzten erabakiak *United States Court of Appeals for the Federal Circuit*-ean helegin daitezke.

Organo honetan, bitxikeria moduan, aipatu behar, auzitegi honek 1999. urtean 10.195.000 \$-eko aurrekontua izan zuela⁷⁰.

2.2.5.4. *Court of Appeals for the Armed Forces*

Auzitegi *legislative* honetan, presidenteak izendatutako eta Senatuak berretsitako 5 epaile zibilek, indar armatuen inguruko auzitegiek hartutako erabakien kontrol zibila burutzen dute. Honela, Washington, D.C.n kokatutako auzitegi honek, *Appellate Court* edo Apelazio Auzitegi bat izanik, beheagoko auzitegiek emandako erabakien kontrako helegiteak ezagutzen ditu.

Auzitegi honen erabakiak *Supreme Court*-ean bakarrik helegin daitezke⁷¹.

2.2.5.5. *The United States Court of Federal Claims*

Washington, D.C.n kokatutako auzitegi honetan 16 epailek AEBetako federazioaren kon-

tra, honek bere jardueran herritarrei eragiten dien kalteengatik kalteordaina eskatzeko herritarrek egiten dituzten erreklamazio guztiak ezagutzen dituzte.

Auzitegi honek eskaera asko ezagutzen ditu, batez ere Konstituzioaren aplikazioak, Kongresuko legeen aplikazioak, edo exekutiboaren eguneroko jarduerak herritarrei sortzen dizkieten kalteen inguruan. Herritarrek Federazioarekin sinatutako kontratuetatik eratorritako kalteen inguruan ere ezagutzen dute.

Auzitegi honen erabakiak ere *US Court of Appeals for the Federal Circuit*-ean helegiten dira⁷².

2.3. Estatu Auzitegiak

2.3.1. Ezaugarri orokorrak

Lerro hauetan zehar hainbat alditan errepi-
katu dugun bezala, Amerikar Federazioko Estatu auzitegi antolaketa ezberdinen artean desberdintasuna da nagusi. Ez gara joan behar oso urrun desberdintasun hauen arrazoiak aurkitzeko: Estatu bakoitzak bere epai sistemarekin bere lurraldearen beharrezan edo premiei erantzun nahi die⁷³, eta 51 Estatu artean, hauetariko bakoitzaren ezaugarriak oso desberdinak izanik (eremu geografikoa, biztanle kopurua, ohiturak, tradizioa⁷⁴, jarduera ekonomikoa, komunikazioak...), azken emaitza beraien artean oso desberdinak diren auzitegien antolaketa multzo konplexu bat da.

Non ezartzen da Estatu ezberdinen auzitegi antolaketa? Jadanik badakigu Auzitegi Federalen antolaketa zein testu juridikotan aurreikusten den. Hauen inguruan, badakigu baita ere Konstituzio Federalak bere 3. artikuluan *Supreme Court*-a bakarrik ezartzen duela esanbidez, eta gainontzeko auzitegi federalak sortzeko gaitasuna Kongresuari aintzatesten diola⁷⁵. Beraz, arauketa federalaren esparruan, Estatu bakoitzak, bere

68. Auzitegi honetan sakontzeko, UNAH, I. *The Courts of International trade: judicial specialization, expertise and bureaucratic policy-making*, University of Michigan Press, Ann Arbor, 1998 eta EOWIN, N.S. *United States International Trade reports. New series*, London-New York: Oceano Publication, 1996.

69. Eskari hauek, mailegu, heziketa programa eta bestelako diru laguntzen inguruan ematen dira.

70. Honi buruz sakontzeko, ikus FOX, W.F. *The United States Court of Veterans*, bigarren argitalpena, Washington, D.C.: Paralyzed Veterans of America, 2001, eta US Congress Committee on Veterans Affairs, *Department of veterans affairs claims adjudication and pending legislation before the committee*, Washington, D.C.: Congressional sales office, G.P.O., 2001.

71. Auzitegi honetan sakontzeko, ikus LURIE, J. *Military justice in America: The US Court of Appeals for the Armed Forces*, Lawrence, University Press of Kansas, 2001; eta autore beraren *Pursuing military justice: the history of the US Court of Appeals for the Armed Forces*, Princeton, N.J.: Princeton University Press, 1998.

72. Honi buruz ikus, United States Claims Court, *United States Federal Claims digest*, St Paul, Minnesota, 1973.

73. Hau oso era txukunean azaltzen dute CALVI, J.V.; COLEMAN, S. *American law and legal systems*, laugarren argitalpena, Upper Saddle River, New Jersey: Prentice Hall, 2000; 42. or.

74. Zentzu honetan, esan behar Estatu guztietako auzitegi antolaketek *English Common Law*-ren eragin handia daukatela –azken finean egun batean ingeles koloniak izan baitziren–, Louisianakoak ezik. Azken honek, bere garaian frantses kolonia izanda, *Civil Law*-ren eragin handiagoa dauka. Puntu honetan polito mintzatzen da FRIEDMAN, L.M. *A History of American Law*, bigarren argitalpena, New York: Simon and Schuster, 1985; 46. or. Ingeles auzitegi antolaketari buruz, berriz, ikus ORDEÑANA, I. "Ingalaterra eta Galesen epailegora sarrera", In: *Eleria*, Euskal Herriko Legelarien Aldizkaria, 9. zenbakia, 2002.

75. Honek, dakigunez, bi bide ditu auzitegiak sortzeko: 1. artikuluko eta 3. artikuluko.

ORDEÑANA GEZURAGA, Ixusko. Amerikar Estatu Batuetako auzitegi antolaketa: Lerro nagusiak (1). *Eleria*. 10, 2003, 57-77

Konstituzio propioaren islan, nahi duen auzitegi antolaketa ezar dezake, muga bakar batekin: Konstituzio Federalaren eta lege federalen errespetua. Muga bakar honi so eginez ere, errazago ulertzen da Estatu ezberdinen sistema judiziala arras desberdina izatea.

Gauzak horrela, Estatu askotan Estatuko Konstituzioak berak ezartzen du auzitegi antolaketa osoa, berak aurreikusten ditu epai organo guztiak, legegilearen eskuetan organoen sortze edo ezarpenari dagokionez ezer askorik uzten ez delarik. Fenomeno honen adibiderik onenak bi dira: Florida eta Alabama. Azter dezagun labur-labur bi hauen egoera.

Floridako Konstituzioak bere 5. artikulua 1. atalean argiro esaten du Estatuari dagokion epai boterea “Auzitegi Gorenaren, Apelazio Auzitegien, *Circuit* Auzitegien, eta *County* Auzitegien⁷⁶ eskuetan” dagoela, auzitegi antolaketa itxi bat, legegilearentzat epai organoen sorrerarako aukerarik aurreikusten ez duena ezarritik, gaineratzen duenean “Estatuak berak, herriek edo beste banaketa politikok –probintziei erreferentzia eginez– ezin izango dute(la) beste auzitegirik ezarri”.

Alabamako Konstituzioak era bareago batean esaten du “Konstituzio honek besterik esan ezean, Estatuaren epai boterea eskusiboki, epai sistema bateratu baten eskuetan” geratuko dela, ondoren Estatu horren auzitegi antolaketa zehazteko: Auzitegi Goren bat, zigor apelazioetarako auzitegi bat, apelazio zibiletarako auzitegi bat, lehen auzialdiko eskuduntza orokorreko auzitegi bat (*Circuit Court* deiturikoa), lehen auzialdiko eskuduntza mugatuko auzitegi bat (*District Circuit* deritzona), oinordetza auzitegi bat (*Probate Court*) eta legeak ezar ditzakeen herri auzitegiak (*Municipal Courts*) (Alabamako Konstituzioaren 6. artikuluko 6. atala). Beraz, ikusten dugunez, kasu honetan beherengo mailako auzitegien kopurua finkatu gabe uzten da, legegileari beroien inguruko eskuduntza aintzatetsiz.

Alabamako Konstituzioak beherengo mailako auzitegiekin egiten duena oso arrunta da, baina ez bakarrik behe mailako auzitegienez, AEBetako Estatuetakoa Konstituzio askok eta askok legegilearen esku uzten baitute beren epai-antolaketa osoa. Horren adibide dira, besteak beste, Michigan, Montana, Nebraska...

Edozein kasutan, Estatuak berauek moldatzen duten epai antolaketa funtsezkoa da, AEBetan ematen diren liskar edo gatazka juridiko gehienak Estatu auzitegien gauzatzen baitira⁷⁷.

Normalean kasuak Estatu auzitegiaren hasi eta bukatzen dira, auzitegi hauetatik federaletarako pausoa oso gutxitan ematen delarik⁷⁸.

Estatuaren auzitegi antolaketa desberdinak badira ere, lerro hauetan antolaketa hauen espiritua jabetu nahi dugunez, auzitegiotik ezaugarri komun batzuk aurkitzen saiatu behar gara. Ez dugu aspektu prozesal hutsetan indarrak egingo, horiek auzitegi federalak aztertzean azpimarratu ditugulako, eta Estatuetakoa auzitegiaren hein handi batean errepikatu egiten direlako.

Honela, lehenengo azpimarratu behar dugun datua da antolaketa judizial guztiak, piramide forma izanik, mailakatuta daudela. Izan ere, Federazioa osatzen duten Estatuaren antolaketa arteko desberdintasun nagusia bakoitzak duen maila, auzialdi alegia, kopurua da: Estatu gehienek hiru maila badiutze ere (lehen auzialdia, apelazioa eta azken apelazioa), askok bi maila bakarrik dituzte, *trial court*-etik, epaiketarik, zuzenean apelazioan Estatu Auzitegi Gorenera pasatzen delarik. Datu hau benetan bitxia da eta beranduago zenbait lerro eskaintzea ongi merezi du.

Mailaketari dagokionez, Estatu guztietan auzitegi antolaketa beheko mailan epaiketari auzitegiak (*Trial Court*-ak) daude, hauen artean beraien eskuduntzaren zabaltasunean oinarrituz bereizketak nagusi bat egiten delarik: eskuduntza mugatuko organoak (*limited jurisdiction Courts*) eta eskuduntza orokorreko organoak (*general jurisdiction Courts*). Lehen auzialdiko organo hauen gainean, Estatu gehienetan apelazio auzitegiak daude –ikusiko dugunez, izen ezberdinak badituzte ere, denek bigarren auzialdi mugatu bat suposatzen dute, lehen mailako auzitegiek aplikatutako Zuzenbidea zuzentzen baitute egitatean azterketan sartu gabe–. Organo hauek gorengo auzitegi batetik bereizteko, “erdi mailako apelazio organoak” (*intermediate appellate Courts*) bezala ezagutzen dira. Aipatu berri dugun gorengo organoa (*last resort Court*) izango da Estatu guztietan sistema judiziala egituratzen duen piramidearen erpina.

Adierazitakoa, errealitatean ematen den antolaketa argazki bakun bat da; izan ere, aipatutako piramide horren barruan ere ezberdintasuna da jaun eta jabe Estatu ezberdinen artean. Horrela, Estatu batzuetan, adibidez *Juvenile Court*-a (gazte auzitegia) behe mailako eskuduntza mugatuko auzitegi bat da, eta bestetan behe mailako eskuduntza orokorreko auzitegien adar bat. Edo, Estatu batean, kasu konkretu bat, adibidez trafiko arazo bat, auzitegi nagusienerarte ape-

76. Ikusiko dugunez, lehen auzialdiko organoak.

77. Horrela baieztatzen du, askoren artean, FARNSWORTH, E.A. *An introduction to the legal system of the United States*, hirugarren argitalpena, New York: Oceano Publications, Inc., 1996; 37. or.

78. Zalantzarik gabe, errealitate hau artikulua hasieran aipatutako Federazioaren eta Estatu ezberdinen arteko eskuduntza banaketarekin lotu behar dugu.

la daiteke, eta beste batean behe mailako arteko apelazioan bukatzen da⁷⁹. Hau guztia, Estatuetan agertzen diren auzitegi bereziak ez aipatzearren, izan ere, eta adibide gisa, Georgiak oinordetza arazoak ezagutzen dituen auzitegi bereziak baititu; Massachusettsen hirigintzari buruzko auzitegi berezi bakar batek dihardu; Montanak langileek pairatutako kalteak ezagutzen dituen auzitegi bat dauka; Michiganek izaera administratiboko auzitegi berezi bat du. Administrazioaren aurkako erreklamazioak ezagutzeko⁸⁰...

Hala ere, eta oro har ezaugarri komunak bilatzeko bidean, esan behar jadanik dakigunez Estatu guztietako auzitegi guztiek egiten dutela legeen Konstituziotasun kontrola; Estatu gehienetako epai egituraren arduraduna bere Auzitegi Gorenaren Burua dela (*Chief of Justice*), nahiz eta Estatu batzuetan ardura hori Auzitegi Goren osoari, bera osatzen duten epaile guztiei atxiki⁸¹, eta ez dela auzitegien artean, orokorrean berauek ezagutzen duten Zuzenbidearen arloari begira (Zibila, Zigor zuzenbidea...) desberdintasunik egiten, auzitegi Federalekin esan genuen bezala, salbuespenak salbuespen —eta aipatuko ditugu bat baino gehiago—, organorik gehienek gai guztiez ezagutzen baitute.

Estatuetako antolaketaren sarrera honi bukaera emateko, Estatuetauko auzitegieta eserzen diren epaileei buruz bi hitz. Sinestu berauek aukeratzeko bideak artikulu baterako ez ezik, liburu baterako ematen dutela, baina labur-labur esan behar Estaturik gehienetan hauteskunde bidez aukeratzeko direla, eta hauteskunde hauetan hautagai bezala aurkeztu ahal izateko zenbait lurraldetan alderdi politiko bateko kide izan behar dutela⁸², baina beste batzuetan ez dela beharrezkoa afinitate politiko jakin bat izatea⁸³. Epaileak aukeratzeko bide honekin, epaileak herriaren aurrean erantzule egitea bilatzen da. Beste Estatu batzuetan, epaileak beren merezimenduen arabera aukeratzeko dira (*merit selection*)⁸⁴. Epaileak aukeratzeko azken bide moduan, azkenengo urteetan *Plan Missouri* izenarekin ezagutzen dena aipatu behar. Estatu askotan, adibidez planari berari izena ematen dion Estatuan, epaileak abokatuek eta herritarrek osatutako batzordeek egindako zerrendetatik izendatzen ditu

gubernadoreak. Horrela aukeratzeko epaileek hurrengo hauteskundeetara aurkeztu behar dute beren burua, baina ez beste hautagai batzuekin lehiatzeko, baizik eta herritarrek epaile horiek beren lanean jarraitzea nahi duten edo ez esan dezaten (*retention election*).

2.3.2. Behe mailako auzitegiak

Auzitegien antolaketa errepresentatzen duen piramidearen oinarria (*lower Courts*) suposatzen duten *trial* organoak dira, epaitze organoak. Berauen bidez sartzeko dira kasuak Estatuetauko sistema judizialean, eta gehientsuetan baita bukatu ere. Honela erraz asko uler daiteke beraiek izatea herritarrengandik hurbilen dauden epai organoak.

Esan bezalaxe, behe mailako auzitegien artean eskuduntza mugatua dutenak (*limited jurisdiction Courts*), hau da kasu jakin batzuei buruz bakarrik ezagutu dezaketenak⁸⁵, eta eskuduntza orokorra dutenak (*general jurisdiction Courts*) desberdintzen dira. Puntu honetan oso matizazio garrantzitsu bat egin behar dugu; izan ere, azkenengo urteetan Estatu batzuk behe mailako epai organo bi mota hauek batzeko prozesuan murgildurik baitaude (*unified court system*), behe mailako eskuduntza orokorreko auzitegiak soilik dituztelarik. Horrela, lehen auzitegi independenteak zirenak, orain lehen auzialdiko eskuduntza orokorreko organoen *specialized division* bihurtu dira; horrela, adibidez, testamentuek eta honen inguruko jabego arazoez ezagutzen duen *probate division*, sendi arteko liskarrak ebazten dituen *family division*, munta txikiko erreklamazioez ezagutzen duen *small claim division*, gazteriarekin zerikusirik duten gatazkez ezagutzen duen *juvenile division*⁸⁶...

Behe mailako epaitze auzitegien batasun hau jadanik Estatu askotan eman da,⁸⁷ batez ere hiru abantaila nagusi dituelarik: batetik, epaitzeaz arduratzen diren auzitegien administrazioa hobetzen laguntzen du. Bestetik, lanaren arabera epaileak *division* batetik bestera mugitzea ahalbideratzen du, honek justiziaren azkartasunean eragin zuzena izanik. Azkenik, *limited jurisdiction*-eko epai organoek urteetan zehar izan duten

79. Trafikoko gaia lehen auzialdian eskuduntza mugatuko behe mailako auzitegi batek ebatzi ondoren, behe mailako eskuduntza orokorreko beste batek ematen dio azken hitza apelazio bidez.
80. Auzitegi berezi hauen inguruan, FRIEDMAN, L.M. *American law introduction*, bigarren argitalpena, New York London: W.W. Norton and Company; 82. or.
81. Horrela da, besteak beste, Iowa, Massachusetts, Missouri, Pennsylvania, Texas, Vermont eta Washingtonen.
82. Beste askoren artean, Missouri, New Yorken, North Carolinan, Pennsylvanian, Tennesseeen, Texasen, West Virginian...
83. Kasu baterako, Floridan, Georgian, Idahan, Kentuckyn, Michiganan, Minnesotan, Mississippin, Montanan, Nevadan...
84. Horrela da, adibidez, Alaskan, Arizonan, Coloradon, Connecticuten, Delawaren, Hawaiiin, Iowan, Kansasen, Utahn...
85. Muga hau gaian edo muntan oinarritzen da batik bat.
86. *Unified Court System* honetan indar egiteko, ikus PORTO, B.L. *May it please the court. Judicial processes and politics in America*, New York: Longman, 2001; 22. orrialdea eta ondorengoak eta TOBIN, R. *Funding the state courts: issues and approaches*, Washington, D.C.: National Center for State Courts, 1996.
87. Adibide gisa, Idaho, Illinois, Iowa, Massachusetts, Minnesota, North Dakota, South Dakota, District of Columbia, Puerto Rico, Connecticut...

izen txarra kentzeko bidean mesede handia egin du, berehala ikusiko dugunez.

Hala ere, oraindik Estatu askotan, gehienetan, behe mailako auzitegien artean aipatutako desberdinketa egiten denez, guk ere horrela egingo dugu.

2.3.2.1. Eskuduntza mugatuko epai organoak

Jarraian, behe mailako epai organo (*lower Courts*) hauen ezaugarri komun batzuk emanen ditugu.

Behe mailako epai organo hauek dira AEBetan ugarietak: guztien %85 adierazten dute. 1998. urtean, aztergai dugun lurralde osoan mota honetako 13.291 auzitegi zeuden. Beraietan 18.000 epai inguru aritzen dira⁸⁸.

Organo hauek epaiketa organoak dira (*trial courts*) eta munta oso txikiko liskarrez lehen auzialdian (*original instance* edo *first instance*) ezagutzen dute. Estatuetan zehar izen ezberdin asko hartzen dituzten organo hauek (*Justice of the Peace Court*⁸⁹, *Justice Court*⁹⁰, *Small Claims Court*⁹¹, *Traffic Court*⁹², *Police Court*⁹³, *Municipal Court*⁹⁴, *Magistrates Court*⁹⁵, *County Court*⁹⁶...) eskuduntza zibila eta penala izaten dute. Zibilari dagokionez, munta oso txikiko erreklamazioez (*small claims*) ezagutzen dute, batez beste 2000 \$ inguruko balioko kasuez. Zigor arloan, urraketa arinak epaitzen dituzte, hala nola dendetako lapurketak (*shoplifting*), trafiko inguruko gatazkak, udal ordenantzen ez betetzeak... normalean urte beteko kartzela zigor eta 5000 \$-era arteko zigorrak ezartzen dituztelarik.

Nahiz eta munta txikiko kasuak ezagutu, beraiek dira auzitegien aurrera eramaten diren kasuen kopuru handiena ezagutzen duten organoak, urtean 71 milioi inguru⁹⁷.

Organo hauek Justiziaren lehenengo maila izanik, oso informalak dira –*not court of records* deitzen zaie, ez dituztelako lekuko eta epaileen jarduerak dokumentuetan jasotzen—: abokatu bidezko defentsa pentsaezina da eta zinpekorik ere ez da aritzen beraietan. Alderdiren batek zinpeko bidezko epaiketa nahi izanez gero, kasua goragoko organo batetan aurkeztu behar du.

Hauetan aritzen diren epaileak gehienetan Zuzenbidean adituak badira ere, oraindik zenbait Estatutan (Arkansas, Delaware, Louisiana, Montana, Ohio eta South Dakotan hain zuzen ere) Zuzenbidean ez jakitun diren epaileek zerbitzatzuten dute. Hau oso kritikatu da, AEBetako lurralde osoan epaile oro Zuzenbidean aditua izateko beharraren joera argi eta garbia atzeman daitekeelarik. Honekin batera, epaileok kasuak ebazteko hartzen duten denbora urria –askotan bizpahiru minutu– eta frogen (*evidence*) praktikatzeko eza gartsuki kritikatzeko dira.

Auzitegi hauen erabakiak behe mailako eskuduntza orokorreko organoen aurrean helegiten dira –inoiz ez *Appellate Court*-etan!–, apelazio hori mugagabea izanik: bigarren auzialdian kasua berriro osoto ezagutuko dute (*trial de novo*), bai lehen auzialdian aurkeztutako egitateak, bai beraiei egin zaien Zuzenbidearen aplikazioa aztertuko dutelarik.

Behe mailako auzitegi hauen eredia *Justice of Peace* auzitegiak eta *Municipal Court* ak dira. Bi hauek izen desberdinekin Estatuetan zehar behin eta berriz errepikatzen dira.

Lehenengoak XIV. mendeko Ingalaterran du jatorria. Auzitegi hauetan Zuzenbidean aditua ez den epaile batek⁹⁸ (JP deitua, *Justice of Peace*-n laburdura), bere eskuduntzako esparru geografikoan, landa munduko herrian gertatzen diren munta txikiko arazo zibil eta penalak ebazten ditu, legean baino erkidegoaren ezagutzan gehiago oinarrituta.

Epaile hauek, epai funtzioez gain, sarri askotan funtzio administratiboak ere badituzte (auzitegiaren aurrekontuaren ardura, beharrezko pertsonala kontratatzea...).

Hain aurrerakoa den Federazioan asko kritikatu da epaile hauen lana, batez ere inpartziala delaren esanetan. Honela, iritzi publikoa beren kontra agertzen da, sortu ziren garaian baliozkoak izan baziren ere egun beren eraginkortasuna eskasa delaren ustetan. Honen aurrean, logikoki galdera bat datorkigu burura: auzitegi hauek arras kritikatuak badira, zergatik mantentzen dira? Batez ere hiru arrazoigatik: epaileek beraiek egin-

88. Datu hauek NEUBAUER, D.W. *Judicial Process: law, courts and politic in the USA*, bigarren argitalpena, New York: Harcourt Brace College Publishers, 1997; 90. orritik aterata daude.

89. Arizonan, Arkansases, Delawaren, Louisianan, Montanan, Texasen, Wyomingean...

90. Mississippin, Nevadan, Oregonen, Utahn...

91. Indianak eta Ohio dute auzitegi hau beste batzuen artean.

92. Beste Estaturen artean Pennsylvanian erabiltzen da.

93. Horrela Estatu banakaren batean deitzen zaio, adibidez, Arkansasen.

94. Estatu gehientsuenetan aurkitzen dugu mota honetako auzitegi bat, hala nola, Alabaman, Arizonan, Arkansasen, Californian, Coloradon, Delawaren, Georgian, Kansasen, Michiganan, Mississippin, Missourin, Nevadan, New Hampshiren, New Jerseyan...

95. Auzitegi hau Georgian, Idahan, South Carolinan eta West Virginian aurki genezake.

96. Arkansasen, Coloradon, Floridan, Georgian, Indianan, Mississippin, Nebraskan, Ohion...

97. NEUBAUER, D.W. *Judicial Process: law, courts and politic in the USA*, bigarren argitalpena, New York: Harcourt Brace College Publishers, 1997; 90. or.

98. Esan bezala, hau aldatuz doa eta Estaturik gehienetan epaileak Zuzenbidean adituak dira.

dako presioagatik, oso merkeak direlako –pobrentzako justizia egiten dutela esaten da– eta herriarengatik oso hurbil daudelako⁹⁹.

Municipal Court-ak, berriz, aurrekoen parekoak izanik, hirietan aritzen dira¹⁰⁰.

2.3.2.2. Eskuduntza orokorreko epai organoak

Piramidearen beheko mailan kokatzen diren auzitegi hauek dira, AEBetako lurralde guztietako lehen auzialdiko organoak (*major trial courts*), arinago aipatu ditugun eskuduntza mugatuko auzitegiei berariaz Konstituzioak edo legeek aintzatesten ez dizkieten kasu guztiez ezagutzen dutelarik.

Tokian tokiko, edo, hobeto, Estatuan Estatuko, izen desberdina hartzen duten epai organo hauek (*Circuit Court*¹⁰¹, *Court of Common Pleas*¹⁰², *District Court*¹⁰³, *Superior Court*¹⁰⁴ edo *Supreme Court*¹⁰⁵) beren eskuduntzapean behe-ragokoak baino lurralde esparru handiagoa eta pertsona gehiago badituzte ere, kopuruz asko gutxiago dira¹⁰⁶, Estatu orok gutxienez mota honetako auzitegi bat duelarik.

Estatu askok beraien lurraldea esparru desberdinetan banatzen dute¹⁰⁷ (normalean *district* izena ematen diete), horietako bakoitzean mota honetako auzitegi bat ezartzen dutelarik. Gainera, lehen maila honetako auzitegi berezituak ere sortu dira, besteak beste *Family Courts*¹⁰⁸, *Juvenile Courts*¹⁰⁹, *Drug Courts*¹¹⁰, *Probate Courts*¹¹¹...

State Court of General Jurisdiction-en atal independente moduan.

Auzitegi hauek, orokorrean, eta aipatu berri ditugun auzitegi berezituak salbuetsita, Estatuaren eskuduntzakoak diren gai guztiak inolako mugarik gabe ezagutzen dituzte: zibilak –dibortzio soil batetik milaka miloi dolarretako kasuetaraino– eta penalak –ez urraketa hutsak soilik, baizik eta baita delitu garrantzitsuagoak ere–. Beherengo mailako auzitegien eta *administrative agency*-en aurkako helegiteak ere ezagutzen dituzte.

Beraien lan zamari dagokionez, esan behar beherengo mailako auzitegiek baino kasu gutxiago ebatzen dituztela, baina auzitegi federalek baino askoz gehiago.

Berauetan aritzen diren epaileak, betiere Zuzenbidean adituak, banaka aritzen dira kasuen epaiketan (*trial*), egitateak ezagutu eta frogak praktikatu ondoren legea aplikatzen dutelarik. Lan horretarako zinpekoen laguntza izaten dute¹¹².

Edozein kasutan, auzia beherengo mailako organoetakoa baino askoz formalagoa eta solemneagoa da –zentzu honetan, *court of record* deitzen zaie, prozedura guztiaren testigantza paperean hartzen delako– eta bertan aritzeko alderdiek derrigorrezkoa dute abokatu baten laguntza.

Auzitegi hauen erabakiak, berehala egingo ditugun matizazioen zain, normalean apelazio auzitegietan helegiten dira.

99. Bakezko epaitegi hauetan sakontzeko, ikus Pennsylvania Bar Association, Committee on Minor Judiciary, *Minor courts in Pennsylvania: a study of the justices of the peace and aldermen*, University Park, Institute of Public Administration, Pennsylvania State University.
100. Hauen funtzionamenduaren deskribapen dotorea egiten dute MEYER, J.; JESLOW, P. "Doing justice" in the people court, State University of New York Press, 1997.
101. Alabama, Arkansas, Florida, Hawaii, Illinois, Indiana, Kentucky, Maryland, Michigan, Mississippi, Missouri, Oregon, South Carolina, South Dakota, Tennessee, Virginia, West Virginia eta Wisconsinen.
102. Bakarrik bi Estatuan: Ohio eta Pennsylvanian.
103. Colorado, Idaho, Iowa, Kansas, Louisiana, Minnesota, Montana, Nebraska, Nevada, New Mexico, North Dakota, Oklahoma, Texas, Utah eta Wyoming.
104. Alaska, Arizona, California, Connecticut, Delaware, District of Columbia, Georgia, Maine, Massachusetts, New Hampshire, New Jersey, North Carolina, Rhode Island, Vermont, Washington eta New Yorken.
105. Horrela da New Yorken! Estatu honetan lehen auzialdiko organoetako aipatutako izena ematen diete, eta azken mailakoari, Estatuko Auzitegi Gorenari, berriz, *Court of Appeals* (Apelazio Auzitegia).
106. 1997. urtean 16.293 *State Trial Court* zeuden AEB osoan, horietatik 13.797 eskuduntza mugatukoak eta 2.496 eskuduntza orokorrekoak. Azken hauetan 9.600 epaile zeuden. Datu hauek NEUBAUER, D.W. *Judicial Process: law, courts and politics in the USA*, bigarren argitalpena, New York: Harcourt Brace College Publishers, 1997; 90. orritik aterata daude.
107. Esparru honek ez dauka zergatik probintziarekin (*county*) bat etorri behar.
108. Auzitegi hauek lehen auzialdian sendiaren inguruko gaiak ezagutzen dituzte (dibortzioak, aitasunak...). Bitxikeria moduan aipatu behar Estatu batzuk etxeko tratatu txarretan espezializatutako auzitegiak sortzen ari direla. Haue buruz, ikus BIRKS, S. *The Family Court: a view from the outside*, Palmerston: Centre for public policy evaluation, Massey University, N.Z. 1998.
109. Estatu gehienetan dauden auzitegi hauek gazteei babes berezia eman nahi diete. Berauek egindako edo pairatutako delituak ezagutzen dituzte gehienbat. Bitxikeria moduan, esan behar sasi-eskola egiten duten gazteen kasuak ere ezagutzen dituztela. Estatu batzuetan auzitegi hauek 18 urte bitarteko jendearentzat dira (Alabama, Kentucky, Ohio, Tennessee...), beste batzuetan 19 urterarte (Wyoming) eta bestetan 16 urterarte (Connecticut, Hawaii, New York, Vermont...). Hauei buruz, ikus KNUFFER, A.M. *Reform and resistance: gender, delinquency and America's first juvenile court*, New York: Routledge, 2001 eta GETIS, V. *The juvenile court and the progressives*, Urbana, University of Illinois Press, 2000.
110. Drogen arazo hain larriaren aurrean, hauei aurka egiteko auzitegi bereziak sortu dituzte Estatu askok. Aitzindaria Floridakoa izan zen, 1990. urtean sortua. Berauetan justizia eta osasuna elkartzen dira gazteak drogen infertutik ateratzeko xedearekin. Ikus HENNESSY, J.J.; PALLONE, N.J. *Drug courts in operation: current research*, New York: Harworth Press, 2002, NOLAN, J.L. *Drug Courts in theory and in practice*, Aldine de Gruyter, 2002, eta autore berdinaren *Reinventing justice: the american drug court movement*, Princeton, N.J.: Princeton University Press, 2001.
111. Hauek testamentuen inguruan sortzen diren arazoez (jabegoak, administratzaileak...) ezagutzen dute. Ikus Commission on National Probate Court Standards, *National Probate Court Standards*, Williamsburg, V.A.: National Center for State Courts, 1999.
112. Jadanik aipatu dugunez, Konstituzio Federalak zinpekoaren erabilera aurreikusten du Federazioko auzitegiarako bai zigor auzietan (6. Emendakina) bai zibiletan (7. Emendakina). *Supreme Court* Federalak zigor auzietan zinpekoa erabiltzeko betebeharra Estatu auzitegiakera hedatu du 14. Emendakinarekin aplikazioz. Ezin izan du Estatuetakoa auzi zibilera hedatu, baina Estatuetakoa Konstituzioek beraiek beren kabuz burutu dute lan hau.

Trial Court-ekin bukatzeko, azken berezitate bat aipatu behar dugu: AEBetako Estaturik gehienak aintzinako *equity* (ekitate) eta *law* (Zuzenbidea) sistema ezberdinak duela urte asko bateratu bazituzten ere –esate baterako, New Yorkek 1848. urtean–, zenbait Estaturik oraindik kasuak ekitate erabiliz ebazten dituzten epai organo bereziak dituzte (*Courts of Chancery*). Hau da Arkansas, Mississippi, Tennessee eta Delawareko kasua. Azken Estatu honetan, adibidez, bere 1792. urteko Konstituzioak berariaz aintzatesten ditu ekitatezko auzitegiak. Auzitegiok Merkataritza zuzenbideaz ezagutzen dute gehienbat.

2.3.3. Apelazio auzitegiak: erdi mailako apelazio auzitegiak

Piramidearen hurrengo mailan, apelazio organoak agertzen dira. Hemen aurkitzen dugu jada aipatuta dagoen amerikar Estatu ezberdinetako auzitegi antolaketa ezaugarri nagusia: Estatu gehienek, hiru maila edo auzialdi badituzten ere, beste batzuek, gutxienez, bi auzialdi bakarrik aintzatesten dituzte. Azter dezagun fenomeno hau, zalantza barik interesgarria gerta daiteke eta.

Estatu txikiek, populazio gutxidunek (hala nola, Delaware, Maine, Montana, Nevada, New Hampshire, North Dakota, Rhode Island, South Dakota, Vermont, West Virginia eta Wyoming) bi auzialdi bakarrik dituzte: herritarak *trial court*-en ebazpenarekin, lehen auzialdiarekin alegia, konforme geratzen ez badira, Estaturiko Auzitegi Gorenera helegiten dute apelazioan. Kasu honetan, Estaturiko epai sistemaren erpinean dagoen auzitegi joatea eskubide bat da herritarrentzat: Auzitegi Gorenak ezin du aukeratu zein kasu ezagutu nahi duen eta zein ez; beste hitz batzuetan, derrigorrezko eskuduntza dauka (*mandatory jurisdiction*), legeak helegitea aurreikusten duen gutzietan auzitegiak helegite hori ezagutu behar duelarik.

Noski, aipatutako sistema hau biztanle gutxiren bizitoki den Vermonten egokia izan daiteke, baina California bezala leporaino jendez betetako Estatu batean ez dauka inolako logikarik. Horregatik, Estatu gehientsuenetan¹¹³ Konstituzioak edo legeak behe mailako auzitegien artean eta gorengo auzitegiaren artean erdi mailako apelazio organo bat aintzatesten dute, hiruren arteko harremanak ere (noiz apelatu, nora, zein arrazoirekin...) zehazten dituztelarik.

Bigarren kasu honetan, erdi mailako apelazio organo hauek Estaturik ematen diren apelazio gehienak ezagutzen dituzte, milaka kasuri bukaera emanez, epai sistemaren apelazio gaitasuna erakutsiz eta Estaturiko Auzitegi Goreneran lan zama nabarmenki gutxituz. Logikoki, Estatu hauek herritar orok ez dauka Estaturiko Auzitegi Gorenera apelatzeko eskubidea: eskubide hau aintzatesten zaio, baina erdi mailako auzitegiaren aurrean (*mandatory jurisdiction*¹¹⁴). Gauzak horrela, Estatu hauek Auzitegi Gorenak diskrezionalitatez (*discretionary jurisdiction*) aukeratzen dituzte ezagutu nahi dituen kasuak.

Erdi mailako apelazio organo hauek tokiak tokiko izen desberdinekin ezagutzen dira; hala nola, *Appeals Court*¹¹⁵, *Appellate Court*¹¹⁶, *Appellate Division of Superior Court*¹¹⁷, *Appellate Division of Supreme Court*, *Appellate Terms of Supreme Court*¹¹⁸, *Commonwealth Court*¹¹⁹, *Court of Appeals*¹²⁰, *Courts of Appeal*¹²¹, *Court of Civil Appeals*¹²², *Court of Criminal Appeals*¹²³, *Court of Special Appeals*¹²⁴, *District Court of Appeals*¹²⁵, *Intermediate Court of Appeals*¹²⁶ edo *Superior Court*¹²⁷.

Gainera, Estatu gehienek erdimailako apelazio organo bakar bat badute ere –beraz, kasu oro ezagutuko dituzte, zibilak eta penalak–, populatuenek bat baino gehiago daukate. Horrela, adibidez, Texasek 14, Californiak 6 eta Louisiana eta Floridak 5 dituztelarik.

113. Horrela da Alabaman, Alaskan, Arizonan, Arkansasen, Californian, Coloradon, Connecticuten, Flordan, Georgian, Hawaiiin, Idahon, Illinoisen, Indianan, Iowan, Kansasen, Kentuckyn, Louisianan, Marylanden, Massachussettsen, Michiganan, Minnesotan, Missourin, New Jersey, New Yorken, North Carolinan, Ohion, Oklahoman, Oregonen, Pennsylvania, South Carolinan, Tennesseeen, Texasen, Virginian, Washingtonen eta Wisconsinen.
114. Noski salbuespenak daudela, adibidez Californian, bere Konstituzioaren 6. artikuluko 11. atalak dioenez, lehen auzialdian heriotza zigorrera zigortuek automatikoki jo dezakete apelazioan Estaturiko Auzitegi Gorenera, *Supreme Court*-era, edo Ohion Konstituzioarekin zerikusirik duen kasu oro automatikoki *Supreme Court*-era doa.
115. Massachussettsen.
116. Connecticut eta Illinoisen.
117. New Jersey.
118. Azken bi izen hauek New Yorken hartzen ditu.
119. Pennsylvania.
120. Estaturik gehienetan, hala nola: Alaska, Arizona, Arkansas, Colorado, Georgia, Idaho, Indiana, Iowa, Kansas, Kentucky, Michigan, Minnesota, Missouri, Nebraska, New Mexico, North Carolina, North Dakota, Ohio, Oklahoma, Oregon, South Carolina, Tennessee, Utah, Virginia, Washington eta Wisconsin.
121. California, Louisiana eta Texasen.
122. Alabaman.
123. Alabama eta Tennesseeen.
124. Marylanden.
125. Flordan.
126. Hawaiiin.
127. Pennsylvania.

Auzitegi bat baino gehiago dituzten Estatu hauetan, berauen antolaketan bi aldagai ematen dira. Estatu batzuetan beren lurraldea zatitu eta horietako bakoitzean kasu orotaz (zibilak eta penalak) ezagutzen duen erdi mailako auzitegi bat jartzen dute (*regional basis*). Hau da Florida edo Texasen kasua. Beste batzuetan, auzitegiok gai desberdinetan espezializatzen dira, eta gai horri dagozkion Estatu osoko kasuak ezagutzen dituzte (*statewide basis*). Azken honen adierazpen gisa, Alabama –erdi mailako auzitegi bat gatazka zibil-lentzako eta beste bat zigor zuzenbidekoentzako– edo Pennsylvania –arazo administratiboek arduratzen den auzitegi bat eta gainerakoak ezagutzen dituen beste bat– aipa genitzake.

Apelazioez gain, auzitegi hauek *state agency* organo administratiboek kontrako helegiteak ere ezagutzen dituzte.

Auzitegi hauetan aritzen diren epaileen kopurua oso ezberdina da, adibidez Alaskan 3 epaile bakarrik dauden bitartean Californian 93 daude¹²⁸. Epaileok normalean hiruak (*en banc*) jarduten dute eta ez dute kasua *ex novo* ezagutzen, lehen auzialdiko organoak egindako legearen aplikazioa berrikustera, Zuzenbidearen aplikazioan egindako okerrak (*errors of law*) konpontzera, mugatzen direlarik.

Auzitegi hauetan ez da frogarik praktikatzeko eta ez da zinpekorik egoten. Beren erabakiak Estatu Auzitegi Gorenean apela daitezke, nahiz eta aukera hau ez den sarri askotan gauzatzen.

2.3.4. Estatuetakoa azken auzitegia edo auzitegi Gorena

Estatu guztietan, bi auzialdi edo hiru izan, beren epai sistemaren erpinean *Last Resort Court* bat dago, berau helegitea aurkezteko azkenengo posibilitatea suposatzen duen organoa izanik. Are gehiago, Estatu bik, Texas eta Oklahoma, azken mota honetako bi auzitegi dituzte: bat arazo zibil-lentzako (*Supreme Court*), eta beste bat Zigor zuzenbidekoentzako (*Court of Criminal Appeals*).

Estatu ezberdinetan izen ezberdinak hartuz (gehinetan *Supreme Court*¹²⁹, besteetan *Court of Appeals*¹³⁰, *Supreme Judicial Court*¹³¹, *Court of Criminal Appeals*¹³² edo *Supreme Court of Appeals*¹³³), auzitegi hauek normalean Estuaren hiriburuan kokatzen dira, eta beraiek dute Estatu Konstituzioa eta legea oro har interpretatzerakoan azken hitza.

Beraietan 5 eta 9 epaileen artean¹³⁴, denek batera (*en banc*), kasu batzuk, oso gutxi, lehen auzialdian ezagutzen badituzte ere (*original jurisdiction*) –batez ere epaileen diziplina kontuak, hasieratik azkeneraino ezagutuko dituztenak–, gehienbat beheko auzitegien apelazioak ebaztiko dituzte. Apelazio hauen inguruan, gogoratu auzia bi auzialdian egituratzen den Estatu organo honek apelazio helegiteak derrigorrez ezagutu behar dituela (*mandatory jurisdiction*), beste Estatu aztertu nahi dituen liskarrak aukeratzeko eskubidea¹³⁵ izango duelarik (*discretionary jurisdiction*).

Auzitegi honen erabakiek kasuan kasuko Estatuaren epai sistemari bukaera ematen diote, berauen kontra jotzeko bide bakarra *The U.S. Supreme Court*-aren aurrera helegitea delarik. Noiz aintzatesten da aukera hau, beti? Ez. Bakarrik *federal question* bat, federazioaren inguruko arazo edo gai bat, normalean Konstituzio Federalean edo lege federaletan errepresentatua, tartean dagoenean. Horregatik, erraz ulertzen da auzitegi hauek *Federal Supreme Court*-ak baino lan asko gehiago izatea.

Auzitegi hauek beren Estatu auzitegi guztiak lotzen dituzten prozedura arauak ematen dituzte¹³⁶.

3. Auzitegi Federalen eta Estatu Auzitegien arteko harremanak

Azken puntu honetan, eta arinago aipatutako guztiaren inguruko gogoeta gisa, AEBetako auzitegi antolaketa federalaren eta Estatu ezber-

128. Auzitegi bakoitzean aritzen den epaile kopurua ikus ROTTMAN, D.B.; FLANCO, C.R.; CANTRELL, M.T.; HANSEN, R.; LA FOUNTAIN, N. *State court organization 1998*, Washington, D.C.: U.S. Department of Justice, Office of Justice Programs, Bureau of Justice Statistics, 2000; 9-12 orr.

129. Horrela deitzen da Alabama, Alaska, Arizona, Arkansas, California, Colorado, Connecticut, Delaware, Florida, Georgia, Hawaii, Idaho, Illinois, Indiana, Iowa, Kansas, Kentucky, Louisiana, Michigan, Minnesota, Mississippi, Missouri, Montana, Nebraska, Nevada, New Hampshire, New Jersey, New Mexico, North Carolina, North Dakota, Ohio, Oklahoma, Oregon, Pennsylvania, Rhode Island, South Carolina, South Dakota, Tennessee, Texas eta Utahn.

130. District of Columbia, Maryland eta New Yorken.

131. Maine eta Massachusettskoa.

132. Oklahoma eta Texasen.

133. West Virginian.

134. 5 epaile dituzte Estatu gehienetako Auzitegi Gorenak (Alaska, Arizona, Delaware, Hawaii, Idaho, Indiana, Nevada, New Hampshire, New Mexico, North Dakota, Rhode Island...); 9 berriz oso gutxi (Alabamak, District of Columbiak, Iowak, Mississippik, Texasek eta Washingtonen). Kopuru zehatzak ikus ROTTMAN, D.B.; FLANCO, C.R.; CANTRELL, M.T.; HANSEN, R.; LA FOUNTAIN, N. *State court organization 1998*, Washington, D.C.: U.S. Department of Justice, Office of Justice Programs, Bureau of Justice Statistics, 2000; 318. orrialdea eta hurrengoak.

135. "They decide the cases that affect the lives of all the residents of their respective States, not just the parties" (beraiek biztanle guztiengan eragina duten kasuak ebazten dituzte), baieztatzen du PORTO, L.B. *May it please the Court. Judicial processes and politics in America*, New York: Longman, 2001; 30. orr.

136. BARNES, P.G. *Desk reference on American Courts*, Washington, D.C.: CQ Press, A division of Congressional Quarterly Inc, 2000; 154. orr.

dinen arteko auzitegien arteko harremanak aztertuko ditugu.

Jada esanda dagoenez, epai sistema bakoitzak, Federalak eta Estatu mailakoak, beren eskuduntza propioak ditu, beraietako bakoitzak dagozkion gaiak ezagutzen dituelarik. Eskuduntza hau Estatuetakoa auzitegien aldekoa da oro har, auzitegi federalen eskuduntza eskusibokoak diren gaiak salbu, berauek liskar eta gatazka juridiko guztiak ezagutu baitituzkete¹³⁷. Beraz, liskar gehienak Estatuetakoa auzitegiek ebazten dituzte, hauen ebazpen prozesuan Konstituzio Federala eta arau federalak errespetatu behar dituztelarik. Era berean, auzitegi federalek ez dituzte ezagutuko printzipioz –eta egingo ditugun matizazioen zain– Estatuaren eskuduntzakoak diren gaiak¹³⁸. Beraz, bi sistemak, lehen begirada batean, independenteak dira, bakoitzak berari dagokion lana egiten duen heinean beraien artean oreka lortzen delarik.

Baina gure gogoetan urrunago joan behar dugu: zer gertatzen da auzitegi federal batek Estatu bateko auzitegien eskuduntzako den gai bat ezagutzen duenean, edo alderantziz? Lehenbailehen, gaia bere eskuduntzako ez dela argitu bezain pronto, beste auzitegiari bidali beharko dio, auzitegi Federalak Estatuak edo alderantziz¹³⁹. Puntu honetan jada bi sistemen arteko harremana dakusagu, hain independenteak ez direla baieztatu genezakeelarik.

Eman dezagun orain bi sistemak independenteak izan arren oso erlazionatuta daudela erakutsiko digun beste urrats bat. Beronen ardatza ondorengoa da: kasu batzuk auzitegietakoa bi sistemek, auzitegi federalek eta Estatu auzitegiek ezagutu ditzakete. Beraz, hasiera batean auzitegien arteko eskuduntzak argi daudela esan bada ere, ez da hau irizpide finkoa. Zeintzuk dira kasu hauek? Oro har, hiru:

1. *Diversity cases* direlakoak: auzian dabilzan bi alderdiak Estatu desberdinetako herritarrek direnean eta beraien eztabaida juridikoaren objektuaren balioa 75.000 \$-etik gorakoa izanez gero, kasu auzitegi federalen aurrean edo Estatuetakoa auzitegien artean aurkez daiteke.

2. Berdina gertatzen da orokorrean araudi federala aplikatu beharreko kasuetan. Normala

denez, kasu askotan Estatuetakoa Zuzenbidea eta Zuzenbide federala, biak aplikatu beharko dira beraien ebazpenerako. Kasu honetan ere Estatuetakoa auzitegiak edo auzitegi federalera jo daiteke.

3. Delitu batzuen kasua. Zenbait delitu (ban-ku lapurketa, drogen trafikoa...) bi araudietan, Estatuak eta Federalean tipifikatzen dira, beraz bi motetako auzitegien aurrean ebaz daitezke.

Hiru kasu hauetan, *forum shopping* delakoa ematen da: abokatuek, auzitegi desberdinen aurrekariari, jurisprudentiari, so eginez, beraien bezeroarentzat mesedegarriena den auzitegia aukeratzeko dute¹⁴⁰.

Aipatutakoari, eta auzitegi mota bien arteko harremanean sakonduz, aurretik ikusi dugun Estatuetakoa auzitegiak Estatuak eta Federalean salto egiteko aukera gehitu behar diogu. Estatuetakoa epai antolatetako erpineko auzitegiak eta epai sistema federaleko erpina, *Federal Supreme Court*-a alegia, zuzenean lotuta daude, Konstituzio Federalaren edo lege federalaren inguruko gaietan lehenengoan erabakiak apelazioan bigarrenengoan helegin daitezkeelarik. Aukera hau Konstituzio Federalak esanbidez aurreikusten du bere 3.2 artikuluan.

Honela, auzitegi Federalak Estatu desberdinetako herritarrentzat berme handi bat dira, Estatuetakoa Auzitegi Gorenak kontrolatzeko eta herritarren oinarritzko eskubideak defenditzeko tokia direlako¹⁴¹. Gainera, Federazioren *Supreme Court*-a Estatuetakoa herritarrek beraien Estatuetakoa auzitegien jokabide desegokiak salatzeko foro egokia da¹⁴². Honen harira, asko dira auzitegi honetara *habeas corpus*-aren inguruko eskubideen aintzatespena lortzera joaten diren pertsonak, beraien Estatuak auzitegiek egindako bidegabeko kartzelaratzeko salatuz¹⁴³.

Epai sistema bi hauen arteko harremanarekin bukatzeko, beraien aplikatu beharreko Zuzenbideaz zenbait ohar egin behar ditugu, puntu honetan ere beraien arteko lotura estua agerian geratzen baita.

Estatuetakoa auzitegiek tokian tokiko Estatu horretako legea aplikatzen dute, baina gainera Federazioren ordenamendu juridikoa

137. Honi *Preemption Doktrina* deitzen diote.

138. Honi *Abstentzioaren Doktrina* deitzen diote.

139. Ikus MECHAN, L.R. *The judicial court system in The United States: an introduction for judges and judicial administrators in other countries*, Washington D.C.: Administrative Office of the US Court, 2000; 16. or.

140. Honetan sakontzeko, ikus NEUBAUER, D.W. *Judicial Process: law, courts and politics in the USA*, bigarren argitalpena, New York: Harcourt Brace College Publishers, 1997; 115. or.

141. CURRIE, D.P. *Federal Jurisdiction*, St Paul, Minnesota: University of Chicago, 1999; 198. or.

142. CALVI, J.V.; COLEMAN, S. *American law and legal systems*, Prentice Hall, New Jersey: Upper Saddle River, 2000; 49. or.

143. JANOSIK R.J. (editorea) *Encyclopedia of the American Judicial System, Volume II*, New York: Charles Scribner's son, 1987; 688 eta 689 orrietan honi buruz mintzatzen da, *Supreme Court*-era auzitegien diren *habeas corpus*-ari buruzko eskaerak asko bada ere, urtero beraien %5ak bakarrik arrakasta lortzen duela esaten delarik. Hala ere, gaia oso polemikoa da, beronen inguruan iritziak oso banatuta daudelarik. Batzuen ustez, kasu hauetan *Supreme Court*-aren parte-hartzea oinarritzko eskubideen defentsarako ezinbestekoa bada ere, beste batzuen abuzur epai sistema Federalak Estatuetakoa epai sisteman muturra sartzeko bide bat besterik ez da.

(Konstituzioa bera eta gainerako lege federalak) errespetatu, eta beraz aplikatu, behar dute. Horrela egiten ez badute, *Supreme Court*-era joateko bidea zabalik dago. Gainera, Estatuetako auzitegiek ezin diote inoiz kasu bat ezagutzeari uko egin berau ebazteko Zuzenbide federala aplikatu behar delaren aitzakiaz, kasua Federazioaren eskuduntza eskusibokoa denean salbu. Edozein kasutan, Estatu guztietako auzitegiek *Federal Supreme Court*-aren jurisprudentzia jarraitu beharko dute.

Auzitegi federalek, berriz, nahiz eta norma-lean Zuzenbide federala aplikatu (*federal question cases*) *diversity jurisdiction*-ak erabakitzean –hau da, liskarrean dabilzan alderdiak Estatu ezberdinetako herritarrak direnean–, Estatu desberdinetako Zuzenbidea aplikatu beharko dute¹⁴⁴.

Beraz, eta azken puntu honetan aski argi ikusten denez, nahiz eta AEBetako auzitegi antolaketa bi sistema edo bi maila horiek desberdindu, auzitegi Federalak eta Estatuetako auzitegiak, azken finean, bien arteko harremanei so eginez, epai antolaketa bakarra dira. Guk hain garden desberdindu ditugun bi epai sistemak beraiek beren Estatu Federalaren epai boterearen berezko ezaugarri bat bezala ikusten dituzte, eta beraien epai bidezko babes eraginkorrerako eskubidea egikaritzeko biak ezinbestekotzat hartzen dituzte.

144. Horrela ezarri da *Supreme Court*-aren jurisprudentzian, hala nola, *Erie R.R. v. Tompkins* (1948) eta *Klaxon v. Stentor Elec. Mfg. Co.* (1941).

ORDEÑANA GEZURAGA, Ixusko. Amerikar Estatu Batuetako auzitegi antolaketa: Lerro nagusiak (1). *Eleria*. 10, 2003, 57-77